



ELKARRIZKETA


Antonio Fraguas 'Forges':
*Lur azalean denok
berdinak garela
erakusten saiatzen
naiz etengabe*

EZTABAIDA

Zezenketarik gabeko Euskadi?

Katalunian zezenketak debekatzeko hartutako erabakiak zalaparta sortu du Euskal Autonomia Erkidegoan ere. Zezenketak debekatu beharko liratekeela esaten dutenen ahotsak zabaldu dira hemen ere, animaliei tratu txarra ematen zaiela argudiatuta. Beste batzuek, ordea, zezenketek jarraitzaile ugari dutela eta kultur ondarearen parte direla defendatzen dute. Batzuen zein besteen iritzia jaso nahi izan ditugu.


IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

HITZETZ HITZ

Euskara eta ingelesa
mintzapraktikatu!

JULIAN GUTIÉRREZ
[ET AL.]



GIZA BALIABIDEAK

Jakintzaren
kudeaketa
administrazioaren
alorrean (eta 2)

JAVIER MARTINEZ
ALDANONDO



EUSKALDUNTZEA

Euskara maila
egiaztatzen duten
tituluak eta
ziurtagiriak
baliokidetuta

HIZKUNTZA
POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA



ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:
Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:
Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Doltza Barandiaran, Urtzi Barrenetxea, Luis Cordero, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Dei Gaztelumendi, Julián Gutiérrez, Bittor Hidalgo, Hizkuntza Politikarako Saillburuordetza (HPS), Joxpi Irastortza, Luma, Javier Martínez, Iratxe Ormatza, Juanan Pereira, Inko Perurena, Nerea Pikabea, Silvia Sanz, Amaia Ugartemendia, Patxi Zabaleta, Izaskun Zuntzunegi.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563
Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea
Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

- 4 **Pasadizoak**
- 5 **Pertsonaia**
Alex Angulo
- 6 **Elkarrizketa**
Antonio Fraguas 'Forges'
- II **Lehiatila**
URDINA. Iratxe Ormatza
- 12 **Normalizazioa**
174/2010 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa
- 14 **Gramatika**
Erlatibo aukeran: estilo kontu (eta 2)
- 16 **Berriak**
- 17 **Eztabaida**
Zezenketak debekatzeko erabakiren bat har liteke Euskadin?
- [**ARIKETAK**]
- 2I **Erreportajea**
UPV-EHUren Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapena
- 24 **Lanean euskaraz**
Pentsatu, sentitu eta egin
- 25 **Mundua on line**
WikiLeaks: iraultza berria
- 26 **Giza baliabideak**
Jakintzaren kudeaketa administrazioaren arloan (eta 2)
- 29 **Euskalduntzea**
Euskara maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu
- 30 **Hitzez hitz**
Euskara eta ingelesa mintzapraktikatu!
- 3I **Lehiatila**
HINTZENA. Doltza Barandiaran
- 32 **Ba al zenekien?**
Erriberako kobazuloetako biztanleak
- 34 **Denbora-pasak**

JOXERRA INTERÍNEZ

Behin-behineko funtzionarioa

interinez@mindless.com



Historiako lehen biltzargunea (?)

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

Gure aitak *ipuri* (ipuin) asko kontatzen zigun, batzuk berak asmatuak eta beste batzuk berari kontatu zizkietenetakoak. Honako hau ez zen izango aitak asmatua, baina nik neuk beste inori ez diot entzun eta inon ez dut irakurri.

Jaungoikoak, aspaldi-aspaldi hartan, gizon-emakumeen gaiztakeriengatik bi belarriraino eginda, Noeri esan omen zion:

“Mundu honetan indarkeria duk jabe; honela jarraitzerik ez zegok, eta dena suntsitu behar diat. Uholde izugarria bidaliko diat mundura; denak itoko dituk. Hi gizon zintzoa haiz, ordea, eta hi ez, hi ez haut galduko. Egin ezak ontzi handi bat eta sar zaitezte emaztea eta biok, zuen semeak eta euren emazteak; eta hartu animalia mota guztietatik bikote bana, ar-meak, eta sar itzak haiek ere ontzian”.

Eta Jaungoikoak esana egin zuen Noek: bi solairuko ontzi handi bat, behekoa animalia astunentzat (elefante, ibaizaldi edo hipopotamo, errinozero, lehoi, mando, tigre eta abarrentzat), eta, goikoa hegazti eta animalia xeheentzat (oilasko, katagorri, zirringilo, sugedorri, zozo, txoka, burubeltz, txepetx, ipurtargi, kakalardo, erle, eltxo... eta txikiagoentzat). Itsasoko animaliek ez zuten itozteko beldurrik: baleak, zereak, hegaluzeak, ataloak, lantesak, takartak, lapatxak, xixangreak, sareamarrrak, txangarrak, lapak... libre ziren arrisku hartatik.

Ontzia egindakoan, barrura sartu ziren guztiak, eta, ateak itxi bezain laster, euria hasi zuen sendo. Bai egin ere gero! Ilundu orduko ontzia kulunkan zebilen ur azalean eta barruko bakoitzak bazuen bere lekua, leku goxoa. Beheko solairuko ia guztiak –elefanteak-eta, behiak-eta...– laster hartu zituen loak. Goiko txikirri jendeari gehiago kosta zitzaion isiltzea, tigreak nahi baino gehiago; baina isildu ziren halako batean. Baina...

Tak..., tak..., tak..., tak..., kolpetxoak goiko solairuan, tigrearen gainean, pareparean. Eta segi: tak..., tak..., tak... Haren egonezina! Eta tak... eta tak... eta tak... etengabe. Tigrea, urduri, amorratuta eta bere onetik irtenda, jirafarengana joan eta esan zion:

–Hi! Ez zakiat zer arraio dabilen hor goian baten bat, baina harrapatzen badiat, txiki-txiki egingo diat. Begira ezak ea zer den.

Jirafak leihotik atera burua, luzatu lepoa, goiko pisuko leihotik barrura begiratu eta berriro beheko solairura egin zuen buelta.

–Eta? Zer da hor goian? –galdetu zion tigreak sututa.

–Baduk oraindik puskaterako, milahanka* oinetakoak kentzen ari duk-eta!

(*milahanka, mila-zangoa, ehunzangoa).

.....

Ez delakoan, badelakoan, Noeren ontzia edo kutxa izango zen, seguru asko, mundu honetako aurreneko biltzargunea. Zein bestela? Lagun askorik ez zen han –Noe bera; emaztea; Sem, Kam eta Jafet semeak eta haien emazteak; haietxek–, baina baita animalia mota guztietako bi ordezkari ere, arra bata, emea bestea. Euria hasi zuenetik bigarren hilaren zazpian atera ziren ontzitik “bizidun guztiak: hegaztiak, abereak eta narrasti guztiak”. Luzea, beraz, biltzarra, eta oso bitxia.

Honelako kontakizunak ez dira beren haritik irteten, adierazi nahi dutena azaltzen dute beste inolako kezkarik gabe, eta kito!, besterik ez. Alferrik ariko gara bes-telako galderak egiten, honelakoak esate baterako: “Zer jan zuten egun haietan haragijaleek?, zer txoriek?...” edo “kakak eta zirinak zer?...”. Hala ere, kontuan hartuta bake egunak, anabasarik gabekoak, izan zirela haiek –iskanbilarik sortu izan balitz, Noek kutxatik kanpora botako zituen-eta liskartiak–, nahikoa denbora eduki zuten hainbat gaiez hitz egiteko edo txio-txioka edo marrumaka jarduteko. Zertaz? Ez jakin, baina bai sumatu. Hurrengo baterako jardungai.

Bitxitasun hau: “[Noe] Guztira bederatzehun eta berrogeita hamar urtez bizi ondoren, hil egin zen”. Kosta zitzaion! Ba ote da gaur egun munduan bat horrelako adinekorik? ■

ALEX ANGULO, AKTOREA:

NEREA PIKABEA. KAZETARIA

Madril eta Bilbo artean ematen du astea 57 urteko erandioar honek. Umila, langilea eta umoretsua. Bere garaiko aktore gehienak bezala, egiturak aldatzeko irrikarekin eta ikuslearengan harridura sortuko zuten gauza berriak eskaintzeko gogoz hasi zen antzerkian. Era guztietako aktore lanak egitea gustuko du, eta hasierako poz berarekin itxaroten ditu hurrengo proiektuak ere.

El Gran Vazquez. Horixe izan da zure azken lana. Nola joan da filma?

Donostiako Zinemaldian aurkeztu genuen. Uste dut ez dela gaizki joan. Hala ere, gaur egun zaila da denbora luzez irautea, film jakin batzuen kasua kenduta. Nik egin dudana papera komisario politikoarena izan da, komiki aldizkari baten enpresa baten barruan.

Beste bi lanetan aritu zara uda honetan? Bai. Oraintxe ari dira muntatzen. Bata Paula Ortizena da, *De tu ventana a la mía*, eta bestea, Michael Aguiló valentziarrarena, *Área de descanso*. Oso eroso sentitzen naiz istorio txikietan, hurbileko istorioak kontatzen baitituzte.

Gustuko dut gazteekin lan egitea, irrika kutsagarri bat izaten baitute

Aurten telebistan ikusiko zaitugu berriro?

La Republica izeneko telesail bat grabatzen ari gara telebistarako, Diagonal ekoiztetxearekin, *La señora* egin zuen etxe berarekin. Lehen Errepublikara garaiak kokatuta dago, Madril ondoko herri txiki batean. Garai hartan Espainian gertatu zirenak kontatzen dira. Protagonistetakako baten aitaren papera egiten dut nik; markesen etxeko zaintzaileak gara.

Sektorea ari al da krisiaren eragina antzematen?

Bai, beste esparruetan bezala. Zinema orain geldirik dago, diru gutxi dago. Gu ere krisiaren eragina jasaten ari gara; hasierara itzultzea bezalaxe da, eta gauza txikiekin proiektu interesgarriak egiten ahalegintzea. Esparru guztietan ideia berriak eta onak izango dituzten gazteen bila dabilta, eta ahal bada, merke. Nik gustuko dut gazteekin lan egitea, irrika kutsagarri bat izaten baitute.

Madrilera iritsi zara. Zure lanbideko askoren ametsa da.

Antzerkian hasi nintzenean, ez nuen pentsatzen ibilbide bat egin behar nuenik, edota Madrilera joango nintzenik. Izpiritu militanteagoa genuen orduan. Egiturak aldatzeko irrikarekin hasi ginen. Gero, bizitzak berak eramaten zaitu. Beharbada, gaur egun pixka bat bakoiztu egin da aktorearen bizitza. Nik uste dut pixkanaka egin behar dela lan, beste lanbideetan bezalaxe; esperientzia hartu, ikasi eta berriro. Ez profesionalek, ezta Administrazioak ere, ez genuen asmatu gure garaian behetik abiatuko zen kultur proiektu baterako oinarriak ezartzen. Batek ez du erabakitzen Madrilera joatea, bere herrialdean egonkortasuna lortzen badu.



Ez al zaizu iruditzen film jakin batzuei izugarrizko bultzada ematen zaiela?

Zinemak ez du funtzionatzen negoziarik ez bada, ekoizlerik edo dirurik ez bada. Zineman ere aniztasuna behar da. Denetik egon behar du negozioa izango ez diren beste era bateko ekoizpenak egin daitezen.

Ba al dago orain arte egin ez eta egitea gustatuko litzaizukeen lanen bat?

Orain arte gertatu zaidanarekin konforme nago. Pozik nago bizitzak eskaini dizkidan aukerekin. Eta adi nago egiten ditudan hutsegiteen aurrean, berriro toki berean hankarik ez sartzeko.

Denbora librerik geratzen zaizu beste era bateko gauzak egiteko?

Askorik ez. Besteek egiten dituzten ikuskizunak ikusten ahalegintzen naiz, ikasten jarraitzeko, eta familiarekin egoteko aprobetxatzen dut, horrek jartzen baitzikit oinak lurrean. ■



ANTONIO FRAGUAS “FORGES”:

*Gure esku eta
ahaleginaren
baitan dago mundua
hain anker ez izatea*

MIEL A. ELUSTONDO
IDAZLEA ETA ARGAZKILARIA

Katalana du ama, galiziarra aita, euskalduna emaztea, madrildarra jaiotzez. Autonomien Estatua zuzentzeko oinarri eskasak ez dira. Antonio Fraguas de Pablo (Madril, 1942) marrazkilari zaildua da, baina are langile saiatu eta porrokatuagoa. Hamalau urte zituela hasi zen lanean TVE Espainiako telebistan, zinema teknikari. 1973an utzi zuen telebistako lana, eta umore grafikoari lotu bete-betean. Hamaika lan egin du harrezkero, nahiz eta eguneroko binetak emanak dizkion aipu eta sona handiak. Gaur egun ere, egunero ageri da haren bineta *El País* egunkarian. Milaka ditu jarraitzaileak gurean ere –*Sorkunde* asmatu zuen Emakunderentzat–, baina hauxe du euskaraz argitaratzen dioten lehen elkarrizketa.



Sinetsi gero, Forges jauna, aldizkari honetan oso gutxitan egingo genizkion inori berrogeita hamar galdera baino gehiago elkarrizketa bat osatzeko lanean...

Hor konpon zuek! Horixe nire aldarria.

Zure erantzunen laburrak izerdi patsa eragiten dio kazetariari elkarrizketa presartzeko garaian...

Hara, motel: kazetaritzan “blokaren beste aldera negarra jo eta gero heltzen da bat”.

Zergatik duzu nahiago era honetako elkarrizketa –luzeran, erantzunak halako bi diren galderak–, eta ez ohikoa, non batak nola-halako galdera zuntzunkordak egiten dituen eta besteak, berriz, mihiari nahi duena esaten uzten dion...

Askoz ere argiago ari da bat. Diot nik!

Zure agendaren nahaste-borraste eta zikulusaltsa eman dizkiguzu bertatik bertarako elkarrizketa ez egiteko aitzakia. Hainbestearainokoa da?

Bai, bai... Nire agendak dakarren betekada multimedia zaletasanari zor zaio: blog, web, irrati, tele, prentsa, twitter, eskup... Horrek erakusketak, hitzaldiak eta beste-lakoak dakartzu, hau da, “endredoak” edo

“izpiak”, antzerkilari buruharroek esan ohi dutenez.

Zure pertsonaiei dagokienean, errazago da galdera egitea, edo erantzun egokia asmatzea?

Zailena galderari erantzutea da beti.

Zer da bineta?

Buruaren laugarren dimentsioa dela esango nuke, baina garrantzi handiko asmorik gabe.

Zein da zure bineten giltza?

Gu guztion sen ona.

“Bineta ez da beti umorea”, dio unibertsitaterako katedradun burutsuak...

Ez nago ados. Bineta beti da umorea. Umorea ez dena, gizakiok behin eta berriz, eta askotan egiten ditugun gauzak.

“Bineta isiltasuna da”, dio poetak...

Jakina, bada. Ez zenekien?

“Poetak idazten du herriaren historia”, irakurri genion Mohamed Xukri idazleari. Horixe ageri dute zure marrazkiek, hemen bertako historia...

AEBetan, bisita txarteletan, izenaren azpian ‘NOT TV’ idatzia duten intelektualak daude

Ez da gezurra. Lur azalean denok berdinak garela erakusten saiatzen naiz etengabe. Historiak horixe erakusten digu... eta, hala eta guztiz ere, gure arteko askok ezberdinak garela uste dugu/aldarrikatzen dugu... Ergela –barkatu– behar da, gero!

Mundu honetako gorabeheren kronika ere bada zure bineta...

Bai, jakina. Gizakiok Kosmoseko gorabeherarik makurrena gara.

Ez dakit zer dugun hobe, futbolaz jardun, edota politikaz...

Tira, hobe, hobe... hobe Elsa Pataki eta gisa honetan...

Edo gauza bera honetaz eta hartaz hitz egitea?

Ez, ez da gauza bera Shakiraz hitz egitea, edo Beyoncéri buruz. Bidenabar, horiek gauzaaaaaaaaaaak...

Lehen, erlijioa zen aitzakia; hura opioa...

Bai. Aukeran, nahiago dut izterondo batek itsutzea ni, “betierekotasun saltzaille” batek baino.

Borroka ikaragarrian murgilduta bizi gara, baina sen oneko jendeok irabaziko dugu azkenean

Filosofoa zioenez, “dena esanda dago, baina jendeak ez du kasurik egiten eta esan beharra dago berriz”...

Sofoklese, bai. Hark zioenez, filosofoa da eguna agerikoa behin eta berriz esaten igarotzen duena. Pertsona arruntari ahaztu egiten zaio-eta.

Hortaz, orain dela 30 urte egin zenituen binetak publikatu ezinik ez zenuke, nahiz eta orain teknikolorean...

Bai, eta Internet bidez ere bai: mundu mundialeko ehun eta milaka binetaginek bezala...

Nola egin daiteke bineta bat –edo bat baino gehiago–, egunean, errepikatzeak saihestuz eta fotokopia baliatu gabe?

Ez duzu galdera makala... baina are zailago duzu egunero zerupean trenkadak egitea edo ikasleak desastotzen jardutea eskolan.

Eta, hala eta guztiz ere, gai beraren gainean, hitz berak egin litezke irrati-telebistetako tertulietan.

Horra non duzun TDTn faxista astotuak ematen ari diren adibidea!

Galdera egin dizut, zu zeu ere direlako tertulietan parte hartua zarelako...

Barkatu, baina mailak eta mailak dira oraindik. Koma eta maiuskula gorabehera da. RNEko Pepa Fernandezek *No es un día cualquiera* (Ez da edozein egun) saioan ez dago “tertulia”rik, TERTULIAK dira.

Zer duzu hobe, pantaila txikian agertzea, ala ez?

Hobe EZ. AEBetan, non gai honetaz asko baino gehiago dakiten, bisita txarteletan, izenaren azpian “NOT TV” idatzia duten intelektualak daude.

Zergatik du jendeak telebista pantailan agertzeko irrika handi hori?

Ez dut erantzunik. Beste erremediorik ez dudanean baizik ez naiz ni bertan azaltzen.

Banketxeak baino aberatsago direnek beste inork ez du bere burua etxean gordetzen. Zergatik ote?

Oso galdera ona, nahiz eta behin ere ez dugun horren erantzunik izango.

Politika eta dirua, eskutik datoz?

Ez guztiz, baina bai... ez dakit garbi *uler-tze’ di’azun*.

Nork du gu krisi ekonomiko honetatik ateratzeko ardura?

Urtean 600.000 euro, eta hortik gora, irabazten duten exekutibo gizon-emakumeek... A zer jende fardela!, aldarririk egiten dut (“Gizon-emakume” jartzera egin dut, inork ez dezan bere burua hortik kanpo jartzeko aukerarik izan).

Uste nuen nork bere burua salbu izatea zela giltza...

Borroka ikaragarrian murgilduta bizi gara; baina, sen oneko jendeok irabaziko dugu azkenean, hau da, fardel ez garenok.

Nork sartu gaitu krisitzar honetan?

Espainiari dagokionez, 200 fardel-familia horiek sartu gaituzte, duela 600 urtetik hona lasai eta bakean bizitzen uzten ez gaituzten horiek, alegia.

Planeta honetako bazter askotan behin ere ez dute behi gizenik izan...

Horixe da, bada! Eta nor gara gu ezer eskatzen hasteko, munduan EZER ERE EZ dutenak hamaika baino gehiago dira-eta!

Zuzena da mundua?

Baita zera ere! Zuzena balitz, Iniesta eta Xavi Galdakaon eta Usurbilen jaiok lira-teke, eta Athleticen jokatuko lukete.

Zer egiten dute gobernuek?

Zer edo zer egin behar da, zer edo zer berria asmatu behar dugu: gobernuak preso dira Merkatuaren kartzelan.

Eta banketxeek?

Lotsagarria espektakulua.

Zein parte dagokigu guri, ez zaldizkoei, baina oinezkoei?

Zatitu egiten gaituzte, batera bentzutu egingo genituzke-eta... Bitartean, gure “etxe dorreetan” itxita segitzen dugu.

Zergatik ginen lehen *jende*, gero *herri-tar*, eta orain *hiritar*?

Ez, ez, okerrago, orain ez gara *bezero* besterik.

Gero baino gero anonimoago gu?

Horixe sinets dezagun nahi dute.

Non da Haiti, zure web atariak dakarren binetatik hara, esan nahi dut...


Espezie soziala izateari dagokionean, Haiti gure porrotaren errealitatea dela erakusten segituko dut.

Non dira Gaza, Sahara, Maroko, Etiopia...?

Haitin. Haitin dago Humanitatearen okerrena. Ez dugu barkamenik, hori gertatzen segitzea ere!

Eta non dira mundu honetan diren gainerako hondamendi natural eta ez-naturalak?

Zer edo zer berria asmatu behar dugu: gobernuak preso dira Merkatuaren kartzelan



Berriz diot: han daude denak. Greziarrek “paradigma” esaten zuten hori da Haiti, adibiderik onena.

Eta non geratzen gara gu, hemen bertakoak?

Oso leku txarrean, eta, nahiago nuke, lotsatuta... Alabaina, egia da frantziarrena zorrotz begiratzeko kontua dela: frantziar koloniak izandako lekuetan dago miseriarik gorriena.

Caritas goretzi izan duzu zure bineta batean baino gehiagotan. Caritas, ala GKEak nahiago?

Erakunde guztietan dago jendea, jende asko, markatik fuerakoa... eta zenbait litxarero ere bai! Gaitz erdi, azkenean errealitateak Inkuriara botatzen ditu litxarero horiek.

Ankerra da mundua...

Bai, baina gure esku eta ahaleginaren baitan dago hain anker ez izatea.

Zergatik dute zure pertsonaiek bateko eta besteko administrazioetako kargudunek baino sen on handiagoa?

Nire pertsonaiak ezin dituelako inork erosi.

Zer iritzi duzu? Abiadura Handiko Trena, urrutiko autobusak, hiri garraioa eta asma dezatena lotuko dituen geltoki intermodala –hitz hori saltzen ari zaizkigu orain– egitekotan dira, Vitoria-Gasteizko berdegunerik handiena dagoen Lakua-Arriaga lekuan bertan...

Logikoa! Uzten diezuen artean, haiek eltzea hartu eta zuei bizitza garrazten segituko dute...

Bitartean, parkearen defentsan ari dira auzoak batera, eta zeruari erreguka, krisiak geltokia egitea galaraz dezan...

Ea egia den... Auzoen batasunari buruz ari naiz, definizio handiko eta 3Dko telebisten sare indibidualista hori hautsirik...

Trantsizio garaira itzultzen ari ote gara, bada?

Nahiago nuke! Denok batera, barrabaske-ria “trinkosiko”aren kontra.

Alderdien diktadura da demokrazia?

Demokrazia GU GEU gara, ea noiz sartzen zaigun buruan.

Zenbat urte –zenbat bineta– dira satsadura-kutsadura-kontaminazio-poluzioari eraso zenion azken alditik hona?

Azken aldia? Herenegun. Madrilekoa duzu pribatizazioak dakarrenaren adibidea: Estatuko osasun sistematik txarrena, Estatuko hezkuntzarik txarrena eta Estatuko poluziorik txarrena... A!, eta Gürtel Lapurrator-en habia.

Eta burrunba? Gure herri eta hiriek zarata soluziobiderik ez dutela ematen du...

Barkatu, baina ez zaitezela kexu izan. Zatozte Madrila: BURRUNBAREN MAFIA MADRILDARRAK lortu duenaren gorena entzungo duzue bertan. Horrelaxe lortzen dute dena, era eta maila guztietako azpikeria lohiaren bidez.

Zein dira zarata eta burrunba mediatikoren onurak, hots, irrati-telebistetako tertulienak?

Guztiok ezagutzen ditugun moduko izakiak bertan agertzea errealitatea baldintzatzen.

Zergatik ekiten diogu gizakiok behin eta berriz eta askotan problema berriak konpontzeari, artean zaharrak konpontzeko gauza ez gara-eta?!

Hori Humanitatearen humanitate berekoa duzu.

Athleticzalea naiz, baina ezinezkoa da nik Gipuzkoan jarraitzaileak galtzea: buruz dakit Realak inoiz izan duen hamaikakorik onena

Zer on ekarri dizute Informazio eta Komunikazio Teknologia izenekoek? Dela eskanerrak, Internetek, posta elektronikoa...

Blasa andreak esango lukeenez, esatekoak di-da zirt-zart esateko era.

Copyrighta, copylefta, creative commonsen bi biribilak, edo bestelako copy-ren bat duzu nahiago?

Nahiago izan... Nik nahiago dut lanpernak jan, eta urdaiazpiko iberikoa, azpizuna, Manolo Blacnik-en oinetakoak –emaztearentzat, jakina–, dena DO-HAIN. Zer dela-eta izan behar da dohain buruko langileen lana ez beste guztia? Galdezka ari naiz...

Ez duzu inoiz pentsatu zure merkatua dibertsifikatzea, gaur egun ohi denez? Eman dezagun, “Forges haurrentzat”, “Forges helduentzat”, “Forges militarrentzat”, “Forges aberatsentzat”, “Sakelako Forges jende arruntarentzat”, “Forges athleticzaleentzat”, “Forges zezenketaren kontrakoentzat”, “Forges...”...

Egia esan, ez, ez dut pentsatu. Hara hor!

Umoregile, ilustratzaile grafiko, marrazkilari... Nola definitzen du Forgesek bere burua?

Bere garaiko langiletzat (saiatzen naiz, behinik behin).

Zenbaitek analista politikotzat joko zintuzke...

Faborez, ez, mesedez.

Edota filosofo pentsalari...

Ezetz, gero! Ni ez nahasteko, bada! Ni super-eko eta tintaren fakturak ordaintzen saiatzen naiz, besterik ez dut egiten!

Athleticzalea izatea merezimendu handia duzu Euskal Herriko alderdi batean... Bizkaian, hain zuzen ere.

Munduak jakiten duen egunean Athleticcek zenbat zale dituen Gipuzkoan eta Araban –zale pila handia, gero, nahiz eta sekretuan izan–, egun horretan –Elkanorenaren ondoren, berriz–, mundua harritu behar du Euskadik.

Gipuzkoan, aldiz, zaleak galtzeko arrisku gorrian zaude...

Ezinezkoa, zeharo! Zendoia dut emaztea, nongoa eta... Hernani bertakoa! Eta buruz dakit Realak inoiz izan duen hamaikakorik onena: Bagur, Gordejuela, Ansola, Elizondo; Larrabeiti, Peporro; Saraqueta, Querejeta, Igoa, Paz eta Echebeste. Eta, gainera, bizian lehenengo aldiz Donostian ikusi nuen itsasoa... Harrapak hori hankatik!

Ea laguntzerik duzun: esango diguzu, faborez, Nafarroa Euskal Herria den? Eta Ipar Euskal Herria?... Zuri galdetzen



dizugu, zenbat buru hainbat aburu –gutxi gorabehera– direlako hemen...

Historiak ez du gezurrik esaten. Historiagile batzuek baino ez dute gezurrik esaten. Gezurrik esaten ez dutenen lanak irakurri behar dira.

Pertsona –ez pertsonaia– ongi maitatua zara, persona askok maite eta miresten zaituzte. Zer diozu? Edota, zure pertsonaiek esan ohi dutenez, zer egiten duzu aldarri?

Oso atsegina zaidala, jende askori esker oneko agertu besterik ez dudala.

Madrilen jaioa zaitugu. Galiziarra duzu aita, katalana ama. Athleticzalea –Real Madrilen zalea ere bai, nonbait–, Autonomien Estatu bateko presidente izateko gaia duzu... Laster gara kanpainan, ezta-riak urratu beharrean hoska: “Forges, Forges, Forges for... president!”.

Ni Madrilen zalea? Errespetu osoz, Mosanda. Eta Autonomien Estatuko presidente izateari dagokion horretaz... Argi ibili txakolinarekin, Flanagham.

Agurraren garaian, “ez adiorik”, edota katalanen “salut i pecats”. Ongi izan, era guztietara ere...

Eskerrik asko. Nik, aukeran, “salut, pecat i adeu siau”, hau da, “osasuna; bekatuak, Jainkoak nahi badu”. Gure amama Valentinak burua jasoko balu, pozak txoratzen egongo litzateke. ■

URDINA

IRATXE ORMATZA

ITZULTZAILEA

Begi-zuloak dituzu, Sara. Aztoratuta zoaz lanera, eta, aldi berean, aspaldi izan bako lasaitasuna, udazkeneko haize leunaren ezintasuna duzu soinean. Ondo lo egin barik, begiak erreta dituzu. Paskalek oraindik ohean txiza egiten du noizik behin, eta “noizik behin” gaur gauean izan da. Koitaduak negarrari eman dio eta zaila izan zaizu lasaitzea. Gainera, arratsaldean, eskolara joan behar duzu, Unairen irakaslearekin hitzordua duzue eta. Tomasek ere joan beharko luke, baina haren lanordua urregorritzakoak dira, eta ezin du bat bera ere galdu. Zertarako joan biak, batekin nahikoa bada? Muturra okertu zenion, aurpegiko azala zurrundu eta kolpe batean arnasa bota. Armin zaude Tomasekin. Lana, lana eta lana, eta bigarren hipoteka eskatzeko zer filigrana egin behar duzuen dira haren kezkaibide nagusiak.

Umeak ume direla eta bera umetan inoiz baino zorientsuago izan zela, eta ez estutzeko diotsu zuri. Gehiegi arduratzen zarela.

Tomas bulegoan irudikatu duzu azken bost urtean azaldutako tripa betearekin. Ez dakizu noiz hasi zinen gizezkoa barik *aita* ikusten, eta larrutan egiteko gogoan galtzen.

Larru gogoa beste nonbait duzu, beste larru batean. Lehenengo aldiz ikusi zenueneko iltzatuta duzu begi artean. Osaba txiki baten hileta-elizkizunean Tomasek berak aurkeztu zizun, izen eta abizen berberak zituztela-eta txisteren bat kontatu, eta denek barre egin zenuten.

Tomas berriak, baina, ez du zerikusirik zaharra-ekin. Antzeko adinekoak izan arren, gorputz gihartsua, esku zabalak ditu, eta haren begiek itsasoaren urdina dute.

Ikusi zenuen hurrengo aldia Bilboko kaleetan izan zen, bulegotik irten eta gero, tupust egin zenuten eta takoietatik ia lurrera jausi zinen. Hasieran ez zenuen ezagutu, hain zeunden murgilduta laneko zereginei eta Paskal eta Unairen gorabeherei heltzeko moduz pentsatzen. Kafe bat edo zerbeza edo ardo bat hartzeko gonbidapenari baietz esan zenion. Azken urteetako antzeko egunetatik ihes egiteko-edo. Semeak ziren haien gorabeherekin antzekotasun hori apurtzen zuten bakarrak, zorionez eta zoritxarrez.

Lehenengoari beste kafe, zerbeza eta ardo batzuk kateatu zitzaizkion, eta bidea egin zuten Tomasen apartamenturaino.

Urpekaria da Tomas, eta laneko ordutegi malguak aukera ematen dio eguerdian lotzeko. Era, kolore eta oihal askotako izaretan babesa hartzen duzue. Izarek mundua eraldatzeko ahalmena izango balute bezala. Bere gorputzarekin orgasmo partekatuak berreskuratu dituzu, eta itsaspeko mundua ikusi, bere ahotsarekin.

Beste Sara bat ezagutu duzu. Horrenbesterik, Sara berriaren aurpegiari argazkia egin, atzean telefonoa idatzi, eta Tomasi emateko plastifikatu zenuen. Dendan esan zizuten jarritako plastikoa iragazgaitza baino, iragaz *ezinezkoa* zela. Tomasek urpean eramateko, ezin hobea.

Etxeko gauerdian, bihotza kal-kal, ondoan senarra duzula ohetik ihes egiteko gogoa izan ohi duzu. Ondoko logelan semeak daude, oster; eta buruak ez dizu uzten etxetik ihes egiteko gogoa izaten.

Bilbon lehenengoz ikusi zenueneko lekura iritsi eta ezin izan diozu eutsi. Mezua bidali diozu. Ez dakizu noiz jasoko duen, lanean egongo den, urpean gogoz sartu den edota beste zerbaitean ibiliko den. Betazalak itxi barik ikusi zenezake, haren azal iluna laztandu, amets betean ibili.

Telefonoak jo du, zenbakia ez da ezaguna. Laneko zerbait. Ahots sendoaz erantzun duzu.

Metroan Barakaldorako bidean, gorputza hormatuta eta begiak izoztuta dauzkazu, zure bihotza eta umeen ahotsak baino ez dituzu entzuten. Tomas Bilbao hil dela esan dizute. Ez duzu sinetsi nahi.


Seme-alabak izan aurreko urteak gogoratu dituzu: parrandak, landa-etxeak, asteburuan elkartzeko irrika, etxeko lehen ohea. Tomasen ahotsa eta irribarre zabala, haren koadrodun alkandorak, haren berba-jarioa... Laukote ederra osatuta daukazuela; bai, lau izan behar duzuela, eta ez hiru.

Gorputza herrenka duzu metroko eskaileretatik gora zoazela. Burua bete eta hutsik, aldi berean. Zer esango diezu Paskal eta Unairi, zelan, zer berba aukeratuko duzu, zer esaldi josi haien bihotza ez desegiteko? Ez dute merezi, ez da bidezkoa aita galtzea. Kristalezko geruza bat eratu zaizu inguruan, eta ospitaleko hitzak eta begiradak, bestaldean geratu. Munduak aurrera jarraitzen du, zu alboratuta, Tomas barik. Tomas haragiztatu gura zenuke ozenki, osorik.

Ohean etzanda dago, lo egon daiteke. Tomas da, bai. Baina ez du arnasarik hartzen.

Goranzkoak loditu dizu ahoa. Komuneko ilunpeko argian aurpegia busti eta lehortu barik itzuli zara. Berriz ere ikusi behar duzu, zure mundutik alde egin baino lehen.

Betazal kolorgeen azpian itsasoaren urdina ikusi duzu. ■



174/2010 DEKRETUA, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzari buruzkoa

LUIS CORDERO

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA ERABERRITZEKO ZUZENDARIA.

JUSTIZIA SAILBURUORDETZA

Uztailean argitaratu zen Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko dekretua. Hirugarrena da hizkuntza-normalkuntza arautzeko asmoz emandakoa, aurretik 117/2001 eta 152/2008 dekretuak eman baitziren.

EAEko Auzitegi Nagusiak, 609/2009 epaiaren bidez, indargabetu zituen 152/2008 Dekretuko hainbat artikulua, eta, hortaz, kolokan gelditu zen lehendik aurreikusita zegoen Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza.

Jose Manuel Finez Ratón Justiziako sailburuorde zenak dekretu berria ematea erabaki zuen, posiblea izan zedin Justizia

Administrazioan ate joka zetozen berehalako aldaketei aurre egitea: batetik, Bulego Judizial Berria ezarri eta abian jartzekotan zegoen, eta, bestetik, horrekin batera, lanpostu zerrendetan aurreneko aldiz hizkuntza-eskakizunak esleitu beharko ziren.

Dekretuaren xedea eta ezaugarriak

Dekretuaren xedea EAEko Justizia Administrazioko hizkuntza-normalkuntzarako prozesua arautzea da; euskararen erabilera normalizatzeko plan batek osatuko du, eta plangintzaldia 10 urtean gauzatuko da.

Kidego hauetako langileei aplikatzen zaie: Kudeaketa Prozesal eta Administratiboa, Izapidetze Prozesal eta Administratiboa, Laguntza Judiziala, Auzitegiko Medikuek eta Laborategiko Laguntzaileak.

Euskara-eskakizuna: bereiztutako lanpostuak

Lanpostu jakin batzuetan (bereiztutako lanpostuetan), euskara jakitea eskatu ahal da, lanpostuaren izaera berezi hori lanpostuaren zerrendan jasota. Gainerako lanpostuetan (lanpostu orokorretan), meritua gisa baloratzen da.

Gaitasun mailak kidegoka esleitzen dira: 2. hizkuntza-eskakizuna (B2), Laguntza, Izapidetza eta Laborategiko laguntzaileen kidegoetan; 3. HE (C1), Kudeaketa eta Auzitegiko Medikuen kidegoetan.

Lanpostuak bereizteko modu bi daude: bereizteko data betea jarritz (lanpostu zerrenda argitaratzeko unekoa) edo data geroratu jarritz (hots, plangintzaldiko bi epealdietako amaiera datetarik edozein jarritz). Bereizteko data heltzean, izaera berezia hartzen du lanpostuak, eta lanpostuaren titularrak kidegoari dagokion HE egiaztatuta eduki behar du.

Lehentasun mailak

Lehentasunak ezartzerakoan funtsezkoa da herritarrekiko zuzeneko harreman maila, eta, hortaz, lehentasuneko jotzen dira herritarrei informazioa emateko unitateak, bake-epaitegiak zein erregistro zibilak,

baita egoitza judizialek kanpo jardutea eskatzen duten komunikazio- eta betearazpen-egintzen zerbitzuak ere.

Mugape judizial bakoitzaren lurraldean euskarak benetan duen ezarpena kon-tuan harturik baloratu behar dira bereiz-tutako lanpostuen egokitasuna eta pro-portzionaltasuna, 86/1997 Dekretuaren 11. artikuluko indize soziolinguistikoari begira.

Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak

Euskarak erabateko baliozkotasuna eta eraginkortasuna du eta edozein jardun judizialean erabili ahal da, baita edozein organo judizialen eta Justizia Administra-zioako organoen aurrean aurkezten diren agiri guztietan ere.

Lehentasunezko organo eta zerbitzuetan euskara zerbitzu-hizkuntza nahiz lan-hiz-kuntza gisa erabil dadin sustatuko da.

Ahozko komunikazioan, hartzaile jakinik gabeko ahozko mezuak euskaraz eta gaz-telaniaz zabaldu behar dira, hurrenkera horri jarraituz. Euskara-ezagupenak dituzten langileek euskaraz hartuko dituz-te herritarrak, eta erabiltzaileek aukera-tzen duten hizkuntzan jarraituko dute. Herritarrak funtzionarioari arreta euska-raz eskatzen dionean, funtzionarioak, eus-karaz behar adina ez badaki, langile elebi-dunen laguntza eskatuko du.

Idatzizko komunikazioan, ahalbidetu eta sustatu egingo da herritarrei bidali beha-rreko jakinarazpenak eta zitazioak euska-raz eta gaztelaniaz idatzita egotea.

Langileen hizkuntza-gaikuntza

Langileentzako euskara-ikastaroetarako baimenak hizkuntza-prestakuntzako bana-kako plan bati lotuta egongo dira. Plan horretan prestakuntza-egutegi zehatza jaso-ko da, langileak dagokion HE eskura

dezan prestatzeko. Gehienez, bost urteko iraupena izango du, eta lehentasuna izango dute lanpostua lehentasunezko organo eta zerbitzuetan edota euskararen ezagutza handiagoa duten mugape judizialean duten langileek.

Euskararen erabilera sustatzea

Erabilera sustatzeko programak progresi-boki bultzatuko dira lehentasunezko orga-no eta zerbitzu judizialean, baita baldintza egokiak dituzten bestelako ataletan ere.

Programen helburua hauxe da: eskatutako euskara-maila duten funtzionarioek bule-goko eguneroko lana euskaraz egin ahal izatea. Horretarako, Itzulpen Zerbitzua-ren eta hizkuntza-normalkuntzarako talde teknikoaren laguntza izango dute, eta eskura izango dituzte agiri normalizatuen eredu informatizatuak, informatika-arlo-ko laguntza, euskara-ikastaro osagarriak eta euskarazko terminoen glosategia. ■


**Txema,
adiskide:**

Zure aurreko epaitegitik hala-ko gogo eta kemenez eta hain-beste proiektuekin etorri zinen, txundituta utzi gintuzun. Ideia bikainak zenerabiltzan beti buruko errotan, eta zure ilusioa kutsagarria zen benetan.

Proiektu horietako bat zen administrazioak balia bideak jartzea prozedura judizialak, ahoz eta idatziz, euskaraz egin ahal izateko. Kontua ez da –esaten zenuen– hainbat fun-

tzionariok halako hizkuntza-eskakizuna lortzea, baizik eta ikasitakoa modu naturalean erabiltzea eguneroko harremanetan. Gogoratzen naiz gai horretan oso kritikoa zinela; “nola da posible –esaten zenuen– ikasleen %80 elebi-dun izatea eta euskaraz hain gutxi egitea?”

Oraindik gogoan dut zure eran-tzuna galdetu nizunean Euska-raren Erabilera Normalizatze-ko Dekretuko artikulua batzuk ber-tan behera uzteak izango zituen ondorioei buruz: “Ez, ez, hau konpondu egingo da; begira, oso erraza da...”, eta ondoren zure ahotik atera zen irtenbidea: koherentea, arrazoizkoa, orde-natua... zu zinen bezalakoa.



Eta onartu beharra dago irten-bide horrek euskara modu mai-lakatuan eta benetan ezartzea ahalbidetzen duela. Modu mai-lakatu dela diogu hamar urte-ko epeari begira planifikatu delako, oso aintzat hartuta zein diren eragindako lanpostuak. Eta benetan ezarriko dela diogu, funtzionario euskaldu-nek beharrezkoa duten laguntza

guztia izango dutelako euskaraz lan egiteko.

Eta lortu da, Txema. Plaza bakoitzari zegokion pertsona. Nor bere lekuan.

Zuk zeuk lortu duzu, eta herri-tar guztion arrakasta izan da.

ROSA GÓMEZ
BULEGO JUDIZIAL ETA FISKALAREN
ZUZENDARIA

Erlatibo aukeran: estilo kontu (eta 2)

BITTOR HIDALGO

EUSKARA IRAKASLEA

BAIT- erlatiboak ekialde zabal osoan

Batez ere ahozko. Ipar eta ekialde osoan erabiliak. *Bait-* menderatzaile orokorra da ($[-e]n$ lez), maiz kausa azalpenari lotua, idatzian nahasgarri gertatu litezke bi erabilerak. *Bait-* erlatiboak ere, kasu markarik gabe ($[-e]n$ lez), ezkutuan uzten du ardatzaren eta aditzaren arteko lotura, eta maiz ageri da azalpen parentetiko gisa (ahoz goranzko intonazioz, *bait* bera toniko-edo bihurtuz):

- **Etxe zahar hori**, *eliza ondoan* BAITAGO, [gurea da.] (Zubiri&Zubiri)
- [Ni sortua naiz] **Artxean**, *orain Enrike bizi* BAITA. (Baztan)
- **Mariano**, *bertsoak egiten ari* BAITA, [horkoa da.] (Oiertzun)

Erran nahi baita esapidea ere halako erlatibo da: *Rabbi, erran nahi baita Maisua.*

Bait- erlatiboak balio berezia du ekialde zabaleko ahozko erabilera itxuratzen.

Ahozko BA azalpenak erdi eta mendebaldean

Egun *bait-* erlatiboak agertzen ez diren eremuan, hauen pare eta orde, oso maiz erabiltzen dira ahoz (M. Kaltzakorta) *BA azalpen* parentetiko subordinazio marka gabeak:

- **Etxe hori**, *ikusten da ba hor ondoan...*
- [Ni sortua naiz] **Artxean**, *bizi da ba Enrike...*
- **Mariano**, *ari da ba bertsoan...*

Ondo erabilgarriak erdi eta mendebaldeko ahozko hizkera itxuratzen.

Azalpenok aurretik, korrelazioak-edo moldatuz

Azalpen birpizgarri guztiok oso ohikoak dira ahoz esaldi nagusiaren aurretik emanak ere (“ardatza-edo” barne).¹ Galdegile bidezkoak ez dira korrelazioz moldatu erlatiboak baino (EGLU-V). Jokatugabeak berriz non eta noiznahi darabiltzagu:

- *Bada ba etxe bat eliza ondoan.* (Ba)...
- *NòLA/ZÈLAN ikusi (bait)dugu(n) (ba) umea orain.* (Ba)...
- *ZÈ(IN) etxe zahar (bait)dago(en) (ba) eliza ondoan.* (Ba)...
- *Zu nORA joaten zaren, anaia ere hara joaten da.* (EGLU-V)
- *ZELANGOA BAITA amea, halangoa oi da alabea.*
- *ZER ikusi, hura ikasi.* Begia NON, harria HAN. ...

ERLATIBO ZAILAK-EDO, EUSKARAZ ERRAZ (-EDO)

$-(e)n$ menderagailuak ere ez du kasurik erakusten, ez informazio eskaintzen ardatzaren eta aditzaren arteko loturaz. Hiztuna maiz da gauza, testuinguru laguntza handirik gabe ere, oso mota desberdineko harremanak antzemateko (EGLU-V):

- Datorren gaztea - *nor*
- Ane datorren ordua - *noiz*
- Ane datorren modua - *nola*
- Ane datorren arrazoia - *zergatik*
- Ane datorren eserlekua - *non*
- Ane datorren bidea - *nondik*
- Ane datorren etxea - *nora*
- Ane bila datorren umea - *noren*
- Ane begira datorren umea - *nori*
- Ane hizketan datorren umea - *norekin*
- Ane bisitan datorren umea - *norengana*
- Ane ihesean datorren umea - *norengandik*
- ...

Baina beti dira kasu ilunak, zehaztasun gabeak, argi uzten ez dutenak ardatzaren eta aditzaren arteko lotura: *Ane datorren umorea | Ane datorren arropa | Ane dato-*

¹ Sinpleagoak ere, galdera itxuran edo: *Gazte horri esan diot -ikusten duzu horko gazte hori?-* ((Ba,) horri.) Edo aurreratuak: *Ikusten duzu horko gazte hori? (Ba,) (gazte) horri...*

rren nekea | Ane datorren umea... Areago, testuingurua urrunekoa izaki, itzulpenetan, testu konplexuetan... Zer egin ohi da halakoetan euskaraz? Tradizioak bi bide jorratu ditu, biak erabilgarriak norabide desberdinetan:

1. **Zehaztasun bidea**, ardatzaren eta aditzaren arteko lotura agerikoa bihurtuz. Bi modu:
 - a. **Zein... (/non...)** erlatiboak
 - b. **Izenordain / partikula erresuntiboena** (\approx erre(a)sumitu | berrartu-labur-)
2. **Ohartarazte bidea**: $-(e)ko$ atzizkiz. Loturaren zer-nolakoa argitu gabe, bitxitasunaz ohartaraziz. Hau ere bi modutara:
 - a. **-(e)neko** atzizkiz (ez bakarrik leku-denborari lotua)
 - b. **-(e)lako** atzizkiz, bi bide nagusitan:
 - Bere barne **ideia gorde lezakeen izenarekin** (*uste, berri...*)
 - **Erlatibo subjektiboak**-edo sortuaz

Ohartarazpen bidea ez da egokia zehaztasunaren bila. Bai ordea ezin egokiagoa irado-kizuna baldin bada hiztunaren helburua.

Izenordain / partikula erresuntiboak, zehaztasun eskainle, aukerako irtenbide beti

Ahoz ohikoa da $-are$ idatziz- (Altube; EGLU-V; Amuriza 2010) esaldi erlatibon bertan ematea izen ardatzaren erreferentzia den izenordain / partikula deiktiko (\approx *deitzaille*) arrunt edo indartua, esaldian dagokion kasuan, ardatzaren eta erlatibatuko aditzaren arteko lotura argituz $-zein...$ erlatiboek lez, baina beti tonu xumeagoan-. Erlatibo mota guztietan erabili liteke (*zein...* erlatiboekin izan ezik):

- \Downarrow *Ogia erosi dudan andre(a...)* (*harekin?* / *harentzat?* / *harengatik?*)
- **Harekin / berarekin** *ogia erosi dudan andre(a...)* (*harentzat* / *ber...*)
- **Andre(,) harekin / berarekin** *ogia erosi dudan(a...)* (...)

- Andre(a...) **harekin** / **berarekin** ogia erosi dudan(a...) (...)
- Andre(a...) erosi baitut **harekin** / **berarekin** ogia (...)

Lotura berez argia bada, erresuntiboak enfasia-edo eskaini ohi du: *Soldata berak irabazi duen gazte(a...)*... –hau da: *berak ez beste inork* / *berak bakarrik*...

-(e)neko + izen ardatza leku-denboraz harago

-(e)neko atzizkia ageri liteke -(e)n atzizki erlatibo soilaren ordez izen sintagma erlatibatu isildua leku-denborazko kasu batean denean, bereziki izen ardatzak ere leku edo denbora izendatzen badu (EGLU-V: *Ereririk datzaneko lurra* / *Zaldi egingo zeneko eguna*; aldi berean aldarrikatu arren «deusetan ez dela beharrezko» -(e)ko hori). Ez dirudi ordea erabat hala.

Batetik, -(e)neko atzizkia ageri delako leku-denborazko ezaugarrietatik kanpo ere –kasu paralelismoz edo gabe–:

- **pastor ordenatu izan deneko popularen** (Leizarraga –zeinen–)
- **doloratua zineneko pena hek gatik** (Haranburu –zeinengatik/zeinez/zeinek–)
- **bizi girenko muienez** (Xarlemagne past. –zeinez–)
- **gogo nuneko maitearekin** (Orixe –zeinekin–)
- **oasis gorria deritzaioneko Timimun** (Anabitarre –zeini–)

Guztietan litzateke ohiko -(e)n atzizki soila (ere). Baina badirudi halakoetan (Hidalgo –lantzen–) idazleak propio ohar-tarazi nahi duela ardatzaren eta erlatibatu aditzaren arteko loturaren bitxiaz. Berez delako ezohiko; edota autoreak zernahirengatik ñabardura berezia eskaini nahi diolako loturari, eta distantzia zabaldu-edo, -(e)n erlatiboa eta ardatzaren tartean leku, denbora edo modu sintagma bat ezkutatuko balu bezala, eta honen balizko interpretazioa mezu-hartzaileari utzi.

Daitekeen toki politena, zehatzaren ordez, Zubirik *daitekeeneko toki politena* eman da, tartea iradokitzen du: *daitekeen* (non-

bait)eko / (noizbait)eko / (nolabait)eko... toki politena-edo. *Esaten [aipatzen] diren hogeita lau agureak* zehatza, Orixeren *esaten direneko hogeita lau agureak* lausotzen-edo du: *Agureak, aipatu, bai, aipatzen dira Apokalipsian, baina jakin behar, benetako edo alegiazko-edo ez ote diren*... Are leku-denborazko kasuetan ere: *eroririk datzan lurra* (zehatza) vs. *eroririk datzaneko lurra* (≈ *eroririk datzan inguruko lurra* / ≈ *eroririk datzan uneko lurra* / ...).

-(e)neko egitura bera ageri zaigu hegoaldeko ohiko *joan deneko* esamoldean (= / ≈ *joan den*; OEH): *joan den(eko) aspaldian*; *joan den(eko) lau urtean*; ...

-(e)neko erlatiboak ez du zehaztasun baliorik. Bai, iradokigarritasun zehaztugabearena, zehaztasuna bezain baliagarri dena.

Bestetik, ohartu behar hainbatetan ez direla ordezkarri -(e)neko eta -(e)n atzizkiak, eta ezinbesteko dela tarteko osagai bat irudikatzea (maiz denborazkoa, baina ez bakarrik), esaldiaren interpretazio okerrera edo ezin interpretatura jausiko ez bagara:

- **Etorri zeneko nekea** (≠ Etorri zen nekea)
- **Bazkaldu zueneko laguna** (≠ Bazkaldu zuen laguna)

-(e)neko: bere barne ideia bat gorde lezakeen izenaren osagarri (ere)

Tradizioan -(e)neko atzizkia (ere) erabili ohi da hegoaldean (Hidalgo, lantzen) ideia lotzeko hau bere barne gorde lezakeen izenari (baturako ez egoki eman bada ere oraingoz). Izan hau, zehar-adierazpen (ohiko -[e]lako atzizkia baino askoz urriago, eta -[e]n atzizki “egokiaren” paretzua-edo). Edota, kuriosago, zehar-galdera.

- **Litxarrero xamarra zaneko pama** [zuan.] (A.M. Zabala)
- [Iritzi au igorri zidan] **emen ager nezakenekoan**. (Azkue)
- **Xabier gaxorik zaneko albiste txarrak** [iltzeko gaitzez gaxorik.] (Etxaniz)
- ..., **amesa egia biurtuko ete zaneko itxaropena**. (Erkiaga)

-(e)lako: erlatibo subjektiboak

Edozein esaldi erlatibori ohiko -(e)n ordez -(e)lako menderagailua erantsita lortuko dugu *erlatibo subjektiboa*-edo (EGLU-V):

- **Egin duten lana**: Zehatza, objektiboa. *Lana egin dute eta horretaz ari gara*.
- **Egin dutelako lana**: Ziurtatu gabea, subjektiboa-edo. *Egin dutela esaten duten, dirudien edo uste den lana, baina jakin behar*...

Euskara guztietan erabili da, ez bakarrik ekialdean:

- [Ezin bizi zitekean] *ezkontzako leialtasuna autsi zuelako emaztearekin* (Lardizabal; *desleial uste zuen emaztearekin*)
- ... *gure etsai diran, eta diralakoakin* izan bear degun eginbidea... (Lardizabal)
- [Zorionekoak persegituak. Baina] Nor dire justuki **dabiltzelako persegituak?** (Añibarro)

Ez da ere besterik ohiko *delako(a...)* ... egitura (OEH): *aberats direnak* –zehatz, objektiboa– vs. *aberats direlakoak* –ziurtatu gabea, subjektiboa: *itxura egiten dute-nak; direla esaten dutenak*...–.

-(e)lako: bere barne ideia bat gorde lezakeen izenaren ideia-osagarri edo

Tradizio guztietan erabili da -(e)lako menderagailua, bere barne’ ideia bat gorde lezakeen izenari zehar-adierazpena lotzeko, -(e)n atzizki soila bezala, nahiz hau berriagoa, soilik mendebalekoa eta maiztasun murriztagokoa izan (edota aipatu -[e]neko). Baina berdinak dira? Bakoitza ñabardura berezia erantsi liezaioke sintagmari aipatu subjektibotasunen harian (-[e]neko atzizkiak bezala).

- Euskara Afrikatik **datorren hipotesia**... (hipotesi zehatza-edo)
- Euskara Afrikatik **datorrelako hipotesia**... (hipotesi subjektiboa-edo: hala “ote” den-edo dioena)
- [Euskara Afrikatik **datorreneko hipotesia**... (erdibidekoa; ez hain zehatz, ez hain subjektibo, baina bietatik ere baduena –Euskaltzaindiak baturako ez egoki iritzia–)]². ■

² Bide bertsutik iradoki liteke ardatz arruntekin ere:

- Deitu diguten bileran (zehatza, objektiboa)
- Deitu digutelako bileran (guztiz subjektiboa: deitu omen / ote diguten bileran)



XABIER LETE, AGUR

*Adiskide bat bazen
Orotan bihotz-bera
Poesiaren hegoek
Sentimentuzko bertsoek
Antzaldatzen zutena...*

Xabier Letek (Oiartzun, 1944), euskal idazle, poeta eta kantari handiak, utzi gaitu. Hala ere, hark zioen bezala, “hildakoek badute gogoratuak izateko eskubidea”; garbi dugu zor hori aski irabazia duela Xabier Letek. Euskal kulturaren erreferenteetako bat izan da, da eta izango da.

Bere lehen literatura lana 1986an argitaratu zuen: *Egunetik egunera orduen gurpilean*; eta azkena, berriz, 2008an *Egunsentiaren esku izoztuak*. Azken lan honekin Euskadiko Literatur Saria jaso zuen.

Ez Dok Hamahiru taldearen sortzaileetako bat izan zen. Bere poemetakoz oso abesti ezagun bilakatu ziren: *Izarren hautsa*, *Habanera*, *Ez nau izutzen negu hurbilak*, besteak beste.

Politikan ere egin zituen bere ekarpenak. 1983an Gipuzkoako Diputazioko kultura zuzendaria izan zen eta 1985ean Kultura diputatua.

Jada, ez dugu gure artean ikusiko, baina haren lana gure artean dugu eta gure artean izango dugu, gure herriaren arimaren zati bilakatu baita; beraz, ez adiorik, baizik eta mila esker eskainitako guztiagatik.

EUSKARAZKO LEHEN SOZIOLINGUISTIKA ESKULIBURUA

Soziolinguistika klusterrak, aspalditik, soziolinguistikari buruzko eskuliburu bat euskaraz idaztea zuen amets; azkenean amets hori egia bihurtu da. Zortzi idazlek (Arkaitz Zarraga, Jean-Baptiste Coyos, Jone Miren Hernández, Lionel Joly, Imanol Larrea, Loren V. Martínez, Belen Uranga eta Paul Bilbao) euskarazko lehen soziolinguistika liburu idatzi dute.

Eskuliburu horren bidez eskura ditugu soziolinguistika diziplinaren terminologia, oinarriak eta kontzeptu nagusiak. Liburu honetan, soziolinguistikaren nazioarteko oinarritzko teoria eta ikerketak bildu dituzte egileek, baita Euskal Herrian teoria eta ikerketa horiek izan duten garapena ere.

Argitalpen horren helburu nagusia izan da hizkuntza-plangintzetan lanean dabiltzan profesional eta arduradunentzako erreferentziatzko liburu izatea, hots, euskararen normalizazioan edonorentzako tresna baliagarria izatea: hizkuntza egoeraren diagnosi aberatsago bat egiteko oinarriak, eta euskara indartzeko politikak eta egitasmoak modu eraginkorragoan diseinatzeko lagungarri.

XUXEN-B BIZKAIERAZKO ZUZENTZAILEA

Azkue fundazioak Xuxen-B Bizkaierazko zuzentzailea erabilgarri jarri du, Open Office 3.0, Firefox 3.0 eta Thunderbird 2.0 aplikazioetarako. Tresna hori Labayru Ikastegiaren, Eleka enpresaren eta EHUko IXA ikerketa taldearen elkarlanaren ondorio da. Bizkaieraz idatzitako testuetan akats ortografikoak detektatu eta zuzentzea ahalbideratzen du gailu horrek, modurik eroso eta eraginkorrean. Xuxen sortzeko Labayru ikastegiak atondutako bizkaiera estandarren ereduari jarraitu diote.

Zezenketak debekatzeko erabakiren bat har liteke Euskadin?

NEREA PIKABEA
KAZETARIA



Katalunian zezenketak debekatzeko hartu den erabakia erreferente bihurtu da Euskadin askorentzat eta horretarako sinadurak biltzen hasi da herritar talde bat. Baina, oraingoz, ez dirudi Legebiltzarra bide horretatik joatearen aldekoa denik. Zezenak protagonista diren ikuskizunak oso sustraituta daude euskal kulturaren, festetan eta tradizioetan. Zezenketen alde eta kontra dauden iritziak eta argudioak jaso ditugu.



KEPA TAMAMES,
ATEAko (Animaliei Tratu Etikoa ematearen
aldeko Elkarte) bozeramailea:

Zerbaitek funsgabeko sufrimendua eragiten badu, horren kontra egin behar dugu

Katalunian onartu den antzeko ekimenen batek aurrera egin dezake Euskadin edo hemen egoera desberdina da?

Une honetan, Euskadin ez litzateke egokia izango Legegintzarako herri ekimen bat. Oraingoz gure lana alderdi politikoekin eta beste gizarte eragile batzuekin *lobby* lana egitea da. Eta uste dugu emaitzak onargariak direla. Legegintzarako herri ekimenaren formulak Katalunian funtzionatu du, baina horrek ez du esan nahi beste geografia eremu batzuetarako errezeta egokia denik. Euskadin egoera desberdina da, eta horregatik beste bide batzuk aztertu behar ditugu puntu berera heltzeko.

Ze iritzi duzu gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan zezenketen inguruan indarrean dagoen araudiaz? Batzuentzat zorrotzegia da, beste batzuentzat ez da nahikoa.

Bere izenak ongi adierazten duen legez, zezen borrokaldiak arautzen ditu, hau da, banderillak zezenaren bizkarrean nola sartu behar diren esaten du, eta martirio-

ak zenbat iraun behar duen. Araudia eskuetan, tauromakiak erabateko bidegabekeria izaten jarraitzen du; bateraezina da etika progresista batekin. Gure asmoa ez da araudi zehatz mota batera iristea, baizik eta ezer arautzeko beharrik ez izatea, zer arauturik ez izatea.

Batzuentzat kultur ondarea da. Ados al zaude?

Erabat. ATEAn ez dugu sekula ukatu begien bistakoa den hori. Ez dugu zalantzan jarri artea edo tradizioa den. Horrek ez du axola. Animaliazaleen tesien arabera, zerbaitek funsgabeko sufrimendua eragiten badu, horren kontra egin behar dugu printzipio kontu bategatik, oinarrizko arrazoi honexegatik: gutariko inori ez litzaioke gustatuko norbera plazan borrokatua izatea. Kulturaren kontuari dagokionez, berriz, huts egingo dugu hitz hori bertuteekin bakarrik lotzen badugu. Kultura desiragarriak eta kultura suntsitzaileak daude. Esate baterako, ez dut uste kultur kutsu gutxiago dutenik klitoriaren ablazioak, itsasoaren kutsadurak edota matxismoak.

Animaliaren heriotzarik ez balitz, zezenketei eustearen aldekoa izango zinateke? Tradizio horri eusteko moduren bat badago, zezenketak beste modu batera egingo balira?

Heriotzarik gabeko zezenketak izaki errugabeentzat muturreko eraso psikologikoa izaten jarraituko du. Animaliazaleok ez dugu bereizketarik egiten sufrimendu psikologikoaren eta fisikoaren artean, denak zitalak baitira biktimentzat, eta hori gure ideien oinarrizko puntua da. Eta ez dut uste borroka *light* baterako alternatiba bideragarriarik dagoenik. Uste dut zezenzaleak beraiek ere aukera horren kontra egongo liratekeela. Tauromakiak gure gizartearen etorkizun bat besterik ez dauka: desagertu egin behar du.

Desberdintasunik ba al dago zezenketen artean eta zezenekin edo bigantzekin egiten diren beste ikuskizun batzuen artean?

Ez. Gauza bera da, emaitzak berdinak dira: sufrimendua eta larrialdia bertan egon nahi ez duten izaki batzuentzat. Bidegabekeria beti da bidegabekeria. ●



ASIER GEZURAGA,
Bilboko Cocherito klubeko diruzaina
eta zuzendaritzako kidea:

Ezin da araudia aldatu eta zaleok ikuskizun horretara joateko dugun eskubidea ukatu

Katalunian onartu den antzeko ekimenen batek aurrera egin dezake Euskadin edota hemen egoera desberdina da?

Nire ustez, Euskadiko errealitateak ez du zerikusirik Katalunian zegoenarekin. Katalunian ekimenak aurrera egin zuenean, zezen plaza bat besterik ez zegoen, Bartzelonako Monumental zezen plaza, eta gainera, zaletasun gutxi zegoen. Euskadin zezen plaza gehiago ditugu: Bilbon, Donostian, Gasteizen, Eibarren, Azpeitian, Tolosan, Laudion, Amurrion eta Sopuertan. Urtean zehar zezen plaza horiek guztiek eskaintzen dituzte zezenketak. Zaletasunari dagokionez, zeharo aldatzen da errealitatea. Adibidez, Cocherito elkarteak 1.300 bazkide ditu. Bilboko biztanleen artean sozialki duen indarrak

zezenketen etorkizuna finkatzen eta bermatzen du.

Ze iritzi duzu gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan zezenketen inguruan indarrean dagoen araudiaz? Batzuentzat zorrotzegia da, beste batzuentzat ez da nahikoa.

Uste dut araudiak finkatu behar direla. Ikuskizun publikoa den legez eta ikuskizun horretara jende multzo bat joaten denez, administrazio publikoek ziurtatu egin behar dituzte araudiak. Baina ezin da, araudi aldaketaren bidea hartuta, zaleok ikuskizun horretara joateko dugun eskubidea ukatu.

Batzuentzat kultur ondarea da; beste batzuentzat, berriz, animaliei tratu txarrak ematea. Zein da zure iritzia? Non dago oreka edo erdibidea?

Zezenketak kultur ondarea dira. Nire ustez, bizi garen gizarte honetan mina eta odola dagoen horretatik ihes egiteko joera dago. Gizartea "eztitzea" bezala litzateke. Okela jan nahi dugu eta jaten dugu, baina ez dugu jakin nahi nola hiltzen dituzten okela ematen duten abereak. Zezenketek bizitzaren errealitatea islatzen dute.

Zezenketak beste era batera egin litezke? Hau da, heriotzarik gabe? Tradizio horri eusteko moduren bat badago, zezenketak beste modu batera egingo balira? Edo jada ez litzateke berdina izango?

Heriotzarik gabe zezenketarik ezin liteke egin. Heriotza kenduz gero, beste ikuskizun bat izango litzateke; zentzurik gabe geratuko litzateke. Esate baterako, Portugalen heriotzarik gabeko zezenketak egiten dituzte, baina hurrengo egunean hiltzen dute zezena. Horrek ba al du zentzurik?

Desberdintasunik ba al dago zezenketen artean eta zezenekin edo bigantxeekin egiten diren beste ikuskizun batzuen artean? Ikuskizun zeharo ezberdinak dira. Ikuskizun horiek elkarren artean duten lotura zezena da; hau da, bi kasuetan zezena

ikono gisa erabiltzen da. Hor ikusten da Euskadiko kulturen eta historian zezenak izan duen eragina. Sokamuturra, entzierroak, zezenketak, etab. Beti zezen artean jolas egin izan da; aberea eta gizona elkarrekin. ●



JOSU LANDALUZE,
Sopelako alkateordea:

Animaliari sufrimendua eragingo dion ikuskizunik ez antolatzea erabaki genuen

Zezenketen Aurkako eta Animalien aldeko Bizkaiko Elkarteak aurkeztutako mozioa onartu zuen Sopelako Udalak duela bi urte. Erabaki hori hartu duen udal bakarra da Euskadin. Zer nolako konpromisoa hartu zuen Udalak?

Orain dela bi urte Eusko Alkartasunak mozioa aurkeztu zuen Udalean. Animaliazaleen proposamena eraman zuen osoko bilkurara. Onartutako mozio horren bidez bi konpromiso hartu genituen: animaliari sufrimendua eragingo dion ikuskizunik ez antolatzea eta horrelako erabakiak Euskal Autonomia Erkidegora luzatu ditzala eskatzea Eusko Jaurlaritzari, 1993ko animalien babeserako legea egokitu bitartean.

Zer dela eta hartu zenuten erabaki hori?

Ez dugu zezen plazarik eta beraz ez da zezenketarik egiten. Baina Udalean onartutako mozio hori zezenketetatik harago doa; animalia guztien sufrimendua kontuan hartzen da. Sopelan aspaldidanik ez da idi-probarik egiten. Abereak sufritu dezakeen ikuskizunik ez da egiten. Hori animaliei tratu txarra ematea dela uste dugu. Urtero Sopelara etortzen den zirkuan ere animaliarik ezin dute erabili, sokamuturrik ez da egiten, etab. Mozio horretan jasotzen den legez, Nazio Batuen Erakundeak eta UNESCOk 1978an erabaki zuten animalien eskubideak giza-kiarenak bezala legez babestu behar direla. Ahulak diren kolektiboak instituzioen bidez babesteko eskatu ziguten animaliazaleek, eta bide horretatik etorri zen gure erabakia.

Katalunian onartu den antzeko ekimenen batek aurrera egin dezake Euskadin edota hemen egoera desberdina da?

Hemen ez dakit aurrera egingo lukeen. Ni behintzat ados egongo nintzateke debekatzearekin. Hala ere, uste dut ez dela Gobernuak edo Legebiltzarrak hartu beharreko erabaki bat. Herriari hitza eman beharko litzaioke eta erreferendum batean erabaki. Gobernuek horrelako erabaki gogorrik hartzea ez dut ondo ikusten. Uste dut jende asko ados dagoela ondare horrekin. Gauza asko daude hor tartean eta argitu egin behar dira.

Ze iritzi duzu gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan zezenketen inguruan indarrean dagoen araudiaz? Batzuentzat zorrotzegia da, beste batzuentzat ez da nahikoa.

Ez dut uste zorrotzegia denik. Oraindik zorrotzagoa izan beharko luke. Zezenketak beste modu batera egiteko aukera ondo ikusten dut. Zezenketak egin, baina, adibidez, banderillarik sartu gabe. Baina noski hor beste arazo bat legoke: arriskutsua izan liteke toreatzailearentzako, zezena bere indar guztiarekin bailegoke. Euskal

Herrian zezenketarako tradizio handia dago. Horregatik, zezenzaleekin eseri eta gaia aztertu egin beharko litzateke. ●



JAVIER BEOBIDE,
Azpeitiko zezenketen antolakuntza
batzordeko kidea:

Azpeitian zezen zaletasunak ez du zerikusirik Espainiako festa nazional izaerarekin

Katalunian onartu den antzeko ekimenen batek aurrera egin dezake Euskadin edota hemen egoera desberdina da?

Euskadin ez dut uste horrelako ekimenen batek aurrera egingo lukeenik. Ezker Batuak eraman du Legebiltzarrera eta ez da aurrera atera. Euskadin zezen zaletasuna Donostian, Azpeitian eta Bilbon dago. Hemengo zaletasuna ez da desagertuko erabaki politiko baten ondorioz, baizik eta belaunaldi berriek ez dutelako jarraituko zaletasun hori. Horrez gain, uste dut zezenketen kontrako jarrera horren atzean festa nazional izaeraren kontrako jarrera bat dagoela, jarrera politiko bat; batzuek nahastu egiten dute eta hori argitu beharra dago. Azpeitian, esate baterako, zezen zaletasunak ez du zerikusirik Espainiako festa nazional izaerarekin. Argudioa animaliarri tratu txarrak ematea baldin bada,

gauza bera dira zezenketak eta sokamuturra. Azpeitian jende asko zezenzalea da, baina ez du zezenketarik ikusten.

Ze iritzi duzu gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoan zezenketen inguruan indarrean dagoen araudiaz? Batzuentzat zorrotzegia da, beste batzuentzat ez da nahikoa.

Andaluzia aldean dagoen ereduaren aldekoa naiz. Ez dakit hemen gehiago zertan estutu dezaketen araudia. Euskadin 16 urtetik beherakoek ezin dute zezenketak ikustera joan, heldu batekin ez bada. Baina gero kalean sokamuturra dagoenean nork kontrolatzen du adinarena? Horrez gain, hemen ezten-hagek handiagoak izan behar dute, zezenak gehiago moteltzen baitira.

Batzuentzat kultur ondarea da; beste batzuentzat, berriz, animaliei tratu txarrak ematea. Zein da zure iritzia? Non dago oreka edo erdibidea?

Iritzi desberdinak daude. Nik errespetatzen dut batek esaten duenean zezenketak ez direla kultura, baina errespetu bera eskatzen dut zaleontzat ere. Azken batean ikuskizun bat da, pertsona baten eta animalia baten arteko borroka bat, nor baino nor gehiago. Toreatzaileak beharbada aukera gehiago ditu zezenak baino. Baina zezenak ere badu bere defenditzeko modua. Azken batean gu geu gara animaliek ahalik eta gutxien sufritzearen alde gaudenak.



Zezenketak beste era batera egin litezke? Hau da, heriotzarik gabe? Tradizio horri eusteko moduren bat badago, zezenketak beste modu batera egingo balira? Edo jada ez litzateke berdina izango?

Nik ez dut ikusten. Portugalen egiten dute hori, baina gero hil egiten dituzte. Kontua da ahalik eta sufrimendu gutxien eragitea zezenari. Ezten-hagak sartu behar dituztenei ere gauzak ondo egitea eskatzen zaie. Guk eskatu izan dugu adarrak bere horretan uztea, zezenak bere burua defendatzeko modua izan dezan.

Desberdintasunik ba al dago zezenketen artean eta zezenekin edo bigantxeekin egiten diren beste ikuskizun batzuen artean?

Nik uste dut gauza bera dela. Nik uste dut zezenketaren kontra dagoenak bestearen kontra ere egon behar duela, argudioa animalia baten babesa baldin bada behintzat. Abeltzainek beraiek esaten dute zezenak entzierrotik pasatzea gero zezenketarako txarra dela: erori egiten dira, horrenbeste jende, etab. ■

UPV-EHUren Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapena

*Euskampus, gizartearen etorkizuna
definituko duen proiektua*

MIEL A. ELUSTONDO

KAZETARIA

Joan den urriaren 21ean Nazioarteko Bikaintasun Campus kalifikazioa lortu zuen Euskampus, hau da, UPV-EHUk, Donostia International Physics Center (DiPC) Fundazioak eta Tecnalia korporazioak elkarlanean burututako proiektuak.

Bikaintasun zigilua jasotzea ez da baitezpadako kontua, bera baita Espainiako Hezkuntza Ministerioak antolatutako Nazioarteko Bikaintasun Campus deialdira aurkeztutako proiektuek lortu ahal duten kalifikazio goren. Hain zuzen, Euskampus izan da programako azken fasera pasatu eta nazioarteko batzorde batek ebaluatu dituen hogeitaka proiektuetako bat. UPV-EHUko errektore Iñaki Goirizelaiak pozak zoratzen jaso zuen berria, egin zituen adierazpenak gogoan hartzen baditugu, behintzat. “Gaur oso egun polita da niretzat, agian errektore bezala eduki dudan egunik zoriontsuena. DiPC eta Tecnalia emandako laguntza itzela eskertu nahi dut ozenki. Proiektu honen arrakasta haiena ere bada. Euskal Herriko Unibertsitateak bidea egiten du zientzia sortuz. Eta bide honetan, DiPC, Tecnalia eta Bordeleko Unibertsitatea gure elkarkide estrategikoak dira. Historia egin dugu eta zientziatik ongizatera doan bide hori elkarrekin egitean oso pozik sentitzen gara”.

Gisa berean mintzatu ziren Donostia Physics Center-eko presidente Pedro Miguel Etxenike, batetik, eta, bestetik, Tecnalia korporazioko presidente Joseba Jauregizar: “Gure herrialdeko errealitate sozial eta ekonomikoari egiten zaion aitorpena da Bikaintasun kalifikazioa”, esan zuen lehenak, eta, bigarrenak, ostera: “Tecnaliarentzat atsegin bidea izan da, UPV-EHU eta DiPCekin batera, aitorpen hau lortzea”.

Euskampus, erreferentzia-eredu

UPV-EHU gidari izan da DiPC eta Tecnalia erakundeekin elkartzeko eta Euskampus ekimena eratzeko prozesuan. Proiektuaren helburua da prestakuntza, ikerkuntza eta berrikuntza gune bat sortzea, nazioartean garrantzizkoa.

Euskampus eraldaketa ekonomikoaren eragilea izan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoan, eta irakaskuntza, zientzia eta

teknologiako erreferente bat Europako Ardatz Atlantikoan. Era berean, lurraldegarapenaren erreferentzia-eredu bat. Ez alferrik dio proiektuaren lemak “Unibertsitate bat, Herrialde bat, Campus bat”.

Jakinarazi duenez, proiektuak honako hiru espezializazio arloak garatu asmo du. Lehenik, ekosistema iraunkorrak eta ingurumen-teknologiak. Bigarren, prozesu berritzaileak eta material berriak. Hirugarren, zahartzea eta bizi-kalitatea. Hiru eremuok ez dira besterik gabe aukeratu, hots, arrazoi sendorik gabe. Aitzitik, kontuan hartu da hiru eremu estrategikook elkartutako erakundeen arteko sinergiak areagotzea, eta gizarte-ongizatean eta bizi-kalitatearen hobekuntzan duten ahalmen handia.

Inondik ere, proiektu integratzaile, malgu eta dinamiko izan nahi duen horrek elkarketaren zutabe nagusietan du zimentarria: materialen fisika, kimika eta robotika. Horri dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoaren egungo ekoiz-

pen zientifikoaren %95 baino gehiago elkarketan parte hartzen duten hiru erakundeek sortzen dute. Euskampusen tresna giltzarria izan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoaren eraldaketa ekonomikoan, sozialean eta kulturean. Honela adierazia du Goirizelaia errektoreak: “Gure helburua datozen urteetan Euskadi erabat aldatzea da, eta Euskampus izatea prozesu horren gidaria eta dinamizatzailea. Gure unibertsitateak bere gain inoiz hartu duen proiektu estrategiko garrantzitsua da. Unibertsitatea eta gure herrialdea etorkizunerantz jaurtiko duen palanka bihurtuko da.”

Bestalde, proiektuaren asmoetan dago mugaz gaindiko campus bat sortzea Bordeleko Unibertsitatearen Goi-mailako Ikerketa eta Irakaskuntza Poloarekin batera. Nazioz gaindiko sare bat eratzea da xedea, nazioartean eragiteko gaitasuna izango duena eta Atlantikoaren ardatzean jakintzaren sorrerarako erreferente bihurtuko dena.

Proiektuaren helburua da prestakuntza, ikerkuntza eta berrikuntza gune bat sortzea, nazioartean garrantzizkoa

2015. urtea helburu

Azaroaren 24an, ostera, agerraldia egin zuen Goirizelaia errektoreak Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean, Bikaintasun kalifikazioa gaitzat harturik. Hasteko, Euskampus osatzen duten entitateak gogoratu zituen. Besteak beste, Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak, udalak, kultur elkarteak, arte-elkarteak, teknologia-parkeak, enpresak, Bikaintasunerako Oinarrizko Zentroa, Elkarlaneko Ikerketa Zentroa, partzuergoak... “Euskampus osatzen duen entitate-talde hau, ezagutza eta

Lurraldegarapenaren erreferentzia-eredu bat izango da Euskampus, ‘Unibertsitate bat, Herrialde bat, Campus bat’ lelopean

teknologia industriara eta gizartera hurbiltzen ahalegintzen den bosgarren potentzia da Europan”, adierazi zuen, 2015. urterako helburuak aletu aurretik.

Ezagutza sortzen jarraitzea da xedeetako bat, hots, doktore hobeak prestatzea, eta nazioarte mailako zientzia ekoizpenen kopurua handitzea. “Doktorego tesiei dagokienez, 292 tesi defenditu dira 2009an. Bada, 360 izatea nahi genuke 2015ean, %21eko igoera, alegia. Bost urte barru, doktorego ikastaroetako ikasleen

Bikaintasun izendapenaren eta Innocampus deialdiaren bidez, 16 milioi euroko finantziario gehigarria izango du Euskampus



%25 atzerriko unibertsitateetatik etorrirakoa izatea nahiko genuke. Nazioarte mailako zientzia produkzioari dagokionez, berriz, Euskampus Web of Sciencen (nazioarte mailako ospea duten zientzia eta teknologia argitalpenen datu-base erreferentziakoa) indexatuko diren 2.200 zientzia argitalpen ditu helburu; 2009an baino %33 gehiago, beraz. Era berean, nazioarteko zein estatuko lehiaketa-deialdietan ikerketarako askoz ere baliabide gehiago eskuratzea ekarriko du Euskampus. Esate baterako, 2015. urterako, Europako programei begira, %14ko hazkundera lortu nahi dugu; estatuko programei dagokienez, berriz, %18koa da gure xedea”.

Euskampusen helburua ere bada, ordea, euskal gizarteari ezagutza igortzea eta helaraztea, lurraldearen ekonomia eta gizarte aurrerapenei bultzada eman eta sortutako ezagutza nazioartean zabaltzea, bertan aintzat hartua izan dadin. Horregatik, proiektu kopurua nabarmen haztearekin batera, sortutako enpresa berrien kopurua bera ere ugaltzea da helburua.

Ikerketaren arloko helburu horiek betetzeaz gainera, gizarte erantzukizunari begira ere Euskampus erreferentzia eredu bihurtzea da xedea, campus eskuagarria eginez, alegia, eta berdintasuna, iraunkortasuna, prebentzio-kultura, garapenerako lankidetzeta eta pareko kontzeptuak gogoan izatea.

IKD (Ikasketa eredu Kooperatibo eta Dinamikoa) izeneko ikaskuntza-irakaskuntza eredu berria inplementatzea ere 2015ean lortzekoak diren helburuen artean da. Iñaki Goirizelaia errektoreak

agindu zuenez, egiteko guztietan euskararen erabilera normalizatua bermatuko dute.

Bikaintasun kalifikazioaren bidez, lau milioi euroko finantziarioa eskuratu du UPV-EHUK, zuzenean; zeharka, ostera, bestelako diru iturrietatik edateko bidea ireki dio. Izan ere, Bikaintasun izendapenak Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren Innocampus deialdira aurkezteko ateak ireki dizkio UPV-EHUri –Nazioarteko Bikaintasun Campus izendapena jasotzeko deialdiaren lehen fasea gainditua zuten unibertsitateak baino ez zuten aipatu deialdi horretara aurkezteko aukera–, eta, horrela, dagokion nazioarteko batzordeak balorazioa egin eta erabaki duenez, hautatu dituzten 26 proiektuen artean ageri da Euskampus. Ondorioz, 11.900.000 euro jasoko ditu UPV-EHUKen Euskampus bigarren bide horretatik. Denera, bi deialdion ebazpenen ondoren, 16 milioi euroko finantziario gehigarria izango du proiektuak.

Azken finean, Euskampus nazioarteko aditu eta jakintsuak erakartzeko polo bat izateko bokazioa du. “Nazioarteko jakintsuak erakartzea klabea da gure geroa eraikitzeari dagokionean”, Goirizelaia errektorearen berbetan. “Klabea da gure ekintza guztietan; baina, are gehiago, klabea da goi-mailako ikerlarien prestakuntzan. Nazioarteko jakintsuak erakarri eta zaintzeak harrobia lantzen lagunduko digu. Hortik dator, beraz, maila goreneko ikerlariak prestatzeko premia diren egiturak sortzeko beharra: Euskal Herriarentzat masa kritiko egonkorra lortuko dugu horrela”. ■

Pentsatu, sentitu eta egin

JOXPI IRASTORTZA MADARIAGA

Bere doktore tesian euskara planetan parte hartzen duten langileen jarrera, portaera eta motibazioa aztertu ditu.

Euskararen gainean gogoeta egin eta eztabaidatzen dutenek, euskararen inguruko pentsamendua garatzen dutenek, esatetik egiterako jauzia samurrago egiten dute

Hori da tesiaren ondorio nagusia:
Paradoxikoa

Motibazioa da pertsonen arteko harremanak oinarri dituzten lanbideetan, seguru aski, gehien erabiltzen den “botika”, baina, askotan, botika bera “gaitz” ororentzat erabiltzen dugun erremedioa ere bada. Batzuetan, sendagai egokia bilakatzen den arren, beste batzuetan ez da eraginkorregia gertatzen. Esate baterako, enpresetako euskara planetan euskara dinamizatzailarentzat ezinbestekoa da langileak etengabe motibatzea euskara gehiago erabil dezaten. Baina, nola lortu “besteak” motibatzea? Nola lortu besteengan eraginez euskara gehiago erabiltzeko norabidean jartzea? Lehenik ulertu behar dena da motibazioa bezalako botikak zein ezaugarri dituen, zer eragiten duen prozesu horrek guztiak. Azken batean, sendagai izango den botika bat erabiltzeko, botika horren ezaugarriak, aldeko edo kontrako faktoreak, balizko eragin kaltegarriak zeintzuk diren, hartu beharreko dosi kopurua... ezagutu behar ditugu. Hau da, motibazioa eta motibazioaren prozesua zertan den jakin beharko dugu.

Artikulu honen izenburuari erreparatzen badiogu hiru aditzez osatuta dagoela ikusiko dugu, hiru aditz bata bestearen atzetik eta hurrenkera batean, apropos jarritako hurrenkeran: *pentsatu* lehenik, *sentitu* ondoren eta azkenik *egin*. Ez daude ausaz jarriak, nahita jarriak daude, izan ere, ikuspegi baten apologia egin nahi baita, Gizarte Psikologiaren baitako ikuspegi Kognitibistaren apologia, hain zuzen ere. Hiru hitz horiek dira egitura psikologikoaren ardatzak, jarreraren hiru osagaiak; alderdi kognitiboa, afektiboa eta konduktuala, edozein pertsonak edozein jarrera objekturen inguruan jarreraren eltzea osatzen duten hiru osagaiak. Eta hiru osagai horiek osatzen duten eltzea bor-bor hasten denean motibatutako portaera bat jartzen da abian. Baina, nola jartzen da prozesu hori abian?

Jakina, horrelako prozesu bat ez da ezerezetik hasten. Portaera bat motibatuko bada, mugituko bada, lehenik eta behin, estimuluren bat jaso beharko dugu, kanpoko estimulua edo gure baitakoa. Demagun, aspaldi ikusi ez ditugun lagun batzuekin egin dugula topo eta eurekin egoteko irrikan gaudela. Gainera, badakigu aspaldian hemengo jakirik ez dutela dastatu eta asko gustatzen zaiela jakitun, gure beste helburuetako bat bazkari goxo bat prestatzea da. Estimulua badugu, motibazio prozesua abian jartzeko aitzakia badugu eta horrelako beste esperientzia batzuk ere ezagutu izan ditugu, prestatu izan dugu otordurik beste batzuetan ere. Jarreraren eltzea osagaiez bete dugu, behar direnak bota ditugu, gure ustez goxoagoa suertatzeko beharrezkoak diren kantitateak bota ditugu. Hala ere, eltzeak, bere horretan ez du borborrik egingo, ez norbaitek intentzio edo konpromisorik hartzen ez badu sua pizteko, behintzat. Sutan jarri dugu eltzea eta hasi da irakiten. Beharbada, hori nahikoa izango da gure helburua lortzeko; baina, beharbada, butanoa bukatuko zaigu edo ondoezik jarriko gara eta eltzekoa erre egingo zaigu. Hala ere, ez gaitezen ezkorrak izan eta pentsa dezagun intentzioa babes-tu dugula, butanoa aldatu dugula eta gure ondoeza joan dela komunitik behera. Zabaldu dugu eltzearen tapa, probatu dugu gatzean, ondo dago; agian ardo txuri pixka batek bizitu egingo luke eta irin pixka batek saltsa loditu. Gure ustez ondo dago, seguru asko hobetu liteke egindakoa baina... Etorri dira lagunak etxera eta hasi gara hitz aspertua; baz-

karian ummka aritu dira. Aurreikusitako helburua lortu dugu, baina, egin dugun gogoetaren edo egindakoaren azterketaren ondorioa izan da hurrengo batean horrelako prozesu bat abian jartzen dugunean, emaitzak hobetzeko aurreko ikasgaitik zenbait aldagai kontuan hartu behar ditugula. Esan bezala, lagunak gus-tura egon dira eta gu ere zapore gozoarekin geratu gara.

Labur esanda, edozein dela gaia, objektua edo estimulua, zenbat eta gehiago jakin hari buruz, gure sentimendua, iritziak, kognizioa edo pentsamendua... ere areagotu egiten dira objektu harekiko, eta objektu haren norabideko helburuak lortze aldera, ekintzak jarriko ditugu abian. Euskara gehiago erabiltzeko zenbait ekin-tza aurrera eramateko intentzio garbia azaltzen badut, intentzio hori portaera bilakatzea posible egiteko barne eta kanpo faktoreak kontrolatzen ahalegintzen banaiz eta, batez ere, helburuak lortu izana edo lortu ez izanaren inguruko kausak aztertzen baditut, gogoeta egiten badut, erabileraren zakua betetzen joango naiz.

Orain hiruzpalau hamarkada emozioetatik abiatzen ginen euskararen normalizazioan bidea egiteko, barru-barruko motibaziotik abiatzen ginen portaerak abiatzeko, hainbat eta hainbat ekintza aurrera eramateko. Euskararen kanpaia jotzarekin batera, jendea herriko plazan biltzen zen. Azken urteotan, ordea, euskarak emozionatzen al gaitu? Zenbat gara emozionatzen garenak? Garaiak aldatu egin dira, bistan da, eta badirudi gizarteak aurreragokorik baduela euskarari erreparatzea baino. Hortaz, nola eragin euskararekiko motibazio intrintseko edo barruko hori? Gizarte psikologiako ikuspegi kognitibistari jarraiki, euskararen gaineko pentsamendua garatuz, euskararen aldeko emozio edo sentimendua ere areagotu egingo zaigu eta ondorioz, guk nahi dugun norabideko pausua ematea ere samurragoa egingo zaigu; beraz, *pentsatu*, *sentitu* eta *egin* ibilbidea da, nire ustez, jarreratik portaerara jauzi egiteko gakoa. ■



MUNDUA ON LINE

WikiLeaks: iraultza berria

LUIS ELIZONDO. luis@hegoa.info

Julian Assangek zuzentzen duen WikiLeaks erakundeak milaka dokumentu sekretu argitaratu zituen iazko abenduan. Era honetan, dokumentuak behar bezala aztertzeko aukera egongo da. Gutunak Estatu Batuetako 297 enbaxada eta Estatu Departamentuaren arteko komunikazioak dira, eta gobernu amerikarraren atzerri-politikaren ikuspegia argi eta garbi erakusten dute. Kablegramak 1966tik 2010eko otsailera artekoak dira, eta mundu osoko politika aztertzen dute. Itzelezko filtrazio honek aldatu egingo ditu herrialdeen arteko jarduera diplomatikoak orain arte eman diren bezala, behinik behin. Bertan, diplomatiko estatubatuarren benetako iritziak jasotzen dira, munduko buruzagi eta herrialdeen interesei buruzkoak, eta Estatu Batuetako jarrera ofizialeko kontraesanak nabarmenki ageri dira.

Assange eta bere *hacker* erakundearen helburua asmo handikoa da: ez da eliteak agerian utzi eta

lotsaraztea, baizik eta mundua aldatzea gobernuen eta botere-taldeek jokatzeko era bihurtaraziz. Ez da gauza bera politikariak ustelak direla eta gobernuak gezurrak esaten dituztela susmatzea, ala horren froga garbia izatea. Era berean, munduko hedabideen papera ere agerian utzi dute. Lagun gutxi batzuek historia osoan emandako filtrazio guztiak baino askoz ere gehiago lortu dute epe laburrean. Zergatik ez dute hori lehenago aurkitu, askoz ere baliabide gehiago dituzten medio boteretsuek? Sistemaren parte direlako, hain zuzen ere.

Jokaldi ausart horren ondorioz, Julian Assange (39 urte), Estatu Batuetako *public enemy number one* bihurtu da. Kanadako Gobernuak aholkulari batek bere heriotza eskatu du telebistan. Australiako Gobernuak ez dio baime-nik ematen bertara sartzeko (Assange australiarra izanik).

Julian Assange arriskuan dago. Bere bizi-asegurua fitxategi informatiko bat da, sistema kriptografiko

konplexu batez kodifikatua. *Insurance.aes256* du izena, eta Interneten aurkitu eta jaitsi daiteke. WikiLeaksen zuzendariari zer edo zer gertatuz gero, bere lankideek kutxa sekretu horren giltza banatuko dute. Inork ere ez daki zein informazio gordetzen duen, baina pentsatzekoa da garrantzitsua izango dela.

Interneteko enpresa erraldoiak estatubatuarrik izanik, dagoeneko WikiLeaks deskonektatzeko pausoak ematen hasi dira: Amazonek bere zerbitzarietatik bota du, PayPal ordaintzeko sistemak ez dio zerbitzua ematen, wikileaks.org domeinua ezabatu dute... Horretaz gain, Suediako epaile batek sexu delitua leporatu dio Assangeri. Erreakzio horiek ikusita, botere faktikoak mehatxatuta sentitzen direla ematen du. Salbatuko ahal da! Kontrako testuinguru aldakor honetan, WikiLeaksen iraultza berria abian da, zerbitzariz zerbitzari saltoka, etsaiengandik ihesi, izenik gabeko helbide honetan eskuragarri: <http://88.80.13.160> ■

Jakintzaren kudeaketa administrazioaren arloan (eta 2)

JAVIER MARTÍNEZ ALDANONDO
CATENARIA. JAKINTZAREN KUDEAKETAKO
DIBISIOKO GERENTEA

Gaur egun, ezinezkoa dirudi hitz jakin batek daukan eraginari izkina egitea. Jakintza da hitz hori. Peter Drucker-ek duela urte batzuk sortu zuen “jakintzaren langile” adierazpidea; komunikabideek ere denbora daramate behin eta berriz esanez jakintzaren gizartean bizi garela; ia erakunde guztiek jakintzaren erakunde nahi dute definitu beren burua, eta badira hiri batzuk ere, jakintzaren hiri direla aldarrikatzen dutenak. Hala eta guztiz ere, norbaiti eskatzen diodanean idatziz adierazteko zer den jakintza, emaitza eskasa lortzen dut; gainera, zenbat pertsonari galdetu, hainbat definizio jasotzen ditut. Artikulu honen lehenengo atalaren¹ helburua zen zenbait kontzeptu ilun argitzea, adibidez, jakintzari

eta jakintzaren kudeaketari buruzkoak. Bigarren atal honek bi gakori buruzko estrategiak planteatuko ditu: jakintza nola identifikatzen den, eta nola kudeatzen. Baldin eta erakunde baten aktibo nagusia bada, izan, bere lankideek lanak aurrera ateratzeko daukaten jakintza, orduan funtsezkoa da jakitea dakiten horretatik zer den garrantzitsuena eta hori nola baliatu daitekeen.

1. Nola identifikatzen da jakintza?

Jakintzaren kudeaketak erakundeak gero eta inteligentago izan daitezela du helburu, hala eraginkorrago izango direlako. Horretarako, eskura daukaten aktibo garrantzitsuena behar bezala kudeatzen asmatu behar dute: jakintza. Eta ondo kudeatuko badute, ezinbestekoa da jakintza aurretik identifikatuta edukitzea, kudeaketa behar bezala egiteko lagungarri izango diren estrategia eta ereduak prestatzeko. Bi helburu horiek erdietsita dituzula, ikasten badakien erakundea zarela esan dezakezu. Baina erronka ez da horren soila. Alde batetik, erakunde batean dau-

katen jakintza, mugagabea izan gabe ere, bada nahiko handia pentsatzeko ezingo dugula inoiz guztiz-gutztiz kudeatu. Bestalde, ez dago katastrofrik erakunde bakoitzak zer dakien erakusteko. Hortaz, ondorioa da jakintza kritikoa dela kudeatu beharreko jakintza. Eta jakintza kritikoa izango da baldin eta estrategikoa bada, eta jakintza estrategikoa da baldin eta lehiarako abantaila ematen badu. Galdera begibistakoa da, horrenbestez: nola identifikatzen da erakunde baten jakintza kritikoa?

Gaur egun adostasun harrigarri kontraesankorra daukagu. Erakunde guztiek aitortzen dute balio ukiezinak, intangibleak, direla beren aktibo nagusia. Zerbitzuak hainbat zeregin eta ekintza betetzen dituzten langileek ematen dituzte, eta horiek ere balio ukiezina dira. Are gehiago, ez dago jakintza baino ukiezin balioitsuagorik. Alabaina, erakundeek aitortzen dute ez dakitela zein egoeratan dauden beren funtsezko aktibo diren horiek: non dauden, zenbat balio duten, zertan diren, zein diren garrantzitsuena, zein arrisku daukaten, eta abar. Eta badakigu jakin zer zaila den kuantifikatu edo identifikatu ere

¹ Ikusi *Administrazioa euskaraz* aldizkariaren 70. zenbakia.





ezin den hura kudeatzen. Bere lana egiteko edozein enplegatu publikok daukan arma nagusia jakintza da. Nik neuk, adibidez, ezingo nuke administrazioan lanean hasi bihar bertan, ez daukadalako horretarako beharrezkoa den jakintza nahikoa. Horrek esan nahi du edozein erakunderen emaitzak bertako langileen jardunaren arabera direla zuzen-zuzen, eta jardun hori, aldi berean, beren lana egiteko orduan, daukaten jakintzaren arabera da zuzenki. Zein da emaitzak lortzen eragin handiena daukan jakintza kritikoa? Zein jakintza behar du erakundeko langile bakoitzak bere lanak behar bezala egiteko? Eta, eduki ez daukan zein jakintza da beharrezko bezeroei hobeto kasu egiteko?

Edozein erakunderen jakintza kritikoa identifikatzeko, ezinbestekoa da bere negozio-eredua zein den jakitea, hortik eratoritzen baita zuzenean bere estrategia. Estrategia analizatzen denean, badago aukera lehiarako abantaila identifikatzeko (identifikatu izana da, hain justu, arrazoia nire bezeroek ni aukeratzeko, edo nik neuk nire lehiakideengandik bereziko nauen beste edozein elementu aukeratzeko). Abantaila hori ezagututa, bada aukera jakintza kritikoa identifikatzeko, alegia, lehiarako abantaila ematen duen jakintza zein den jakiteko. Administrazio publikoak ez direnez errentagarritasunaren, salmenten, merkatuko kuoten edo irabazien arabera ebaluatzen, berez ezin dugu zehatz-mehatz lehiarako abantailaz hitz egin; horrenbestez, dena delako jakintza kritikotzat hartuko dugu baldin eta zuzeneko eragina baldin badauka lortu nahi diren emaitzetan. Jakintza kritikoa zein den badakigula, ez da horren zaila izango jakintza kritikoa horren *jabe* diren adituak identifikatzea. Jakintza identifikatzeko prozesuak administrazioaren ikuspegi estrategikoarekin zuzen-zuzenean lotuta dagoen abiapuntua behar du.

Erakunde publikoak ere behartuta daude gainerako erakundeen antzeko kudeaketa-estandarren arabera jarduten. Bezeroen eta premien profil zehatza eta amaitua behar dute eduki, hori kontuan hartuta, balio-kate egokia diseinatzeko bezero horiei ondo kasu egiteko eta, ahal bada, gustura edukitzeko. Eta balio-katea zer da? Bada, bezeroak aintzat hartzeko enpresa batek antolatzen dituen jardueramultzoa, horixe. Baina, horrez gain, kudeaketa-adierazleak ere behar dituzte hitzemandako emaitzak benetan lortu dituzten erakusteko, eta lortzeko bidean erabiliko dituzten planen eta ekintzen berri emateko argi eta garbi. Prozesu horri planifikazio estrategikoa esaten zaio orokorrean, eta gero eta gehiago dira erakunde publikoak (enpresa pribatuak bezalaxe) konturatuta daudenak helburuak bete nahi badituzte behar-beharrezkoa dutela foku estrategikoa zehatza edukitzea, bai eta erakundeko kide guztiek neurtu eta partekatze moduko emaitzak ere. Erakunde bateko balio-katea ezagutzeak aukera ematen du jakintzaren kudeaketan hain funtsezko diren zenbait elementu identifikatzeko:

- a. Balio-katea etapatan banatzen da eta etapak, aldi berean, ekintza kritikotatik, balio-kate horrek funtziona dezan eta erakundeak bere helburuak bete dituzten garrantzi gehien dutenak.
- b. Ekintza horiek aurrera atera ahal izateko, egokia da beharrezko eta ezinbesteko jakintza kritikoa identifikatzea.
- c. Jakintza kritikoa identifikatu ondoren, badago aukera jakiteko zein diren jakintza hori daukaten adituak, bai eta jakintza hori eduki behar luketenak ere, eta jakintza hori nori zabaltzen ahalegindu behar lukeen erakundeak.
- d. Jakintza kritikoa badaukagula, derrigor jakin behar dugu zer egoeratan dagoen jakintza eta nola proposatu ekintza-planak jakintza hori behar bezala kudeatzeko.

2. Nola kudeatzen da jakintza?

Garrantzitsua da puntu hau lantzerakoan, hasiera-hasieratik aitortzea jakintza ezin dela zuzenean kudeatu. Jakina, badago modurik jakintza identifikatzeko, zirkularizatzeko eta handitzeko baldintza eta inguruak sortzeko. Adibidez, langileak saritu daitezke era batera edo bestera, berentzat komenigarriagoa izan dadin jakintza banatzea norberarentzat gordetzea baino, eta jakintzaren emaitzak ere neur daitezke; baina, tamalez, jakintza bera, bere horretan, ezin daiteke kudeatu, ez baita gauza bat, neuronen egitura bat baizik. Bizikletan ibiltzea adibide hartuta, hona galdera bat: zer-nola kudeatu dezakezu jakintza hori? Idatzitako testu hura bizikletan ibiltzen ez dakien lagun bati eman gero bazenien, ezertarako balio al dio? Zure lagun horrek premiazkoa badu ikastea, zer-nola pasatuko diozu zuk badaukazun eta berak falta duen jakintza hori? Moldatuko al da bizikletan ibiltzen zure testua buruz ikasiz gero? Kudeatu al daitezke zoriona edo irrika? Ukiezinak oso zailak dira neurtzen; are gehiago zuzenean neurtzen. Horrek zer esan nahi du, amore eman behar genukeela eta ezer ez egiten etsi, goizetan eguzkia edo euria ote den ikustera leihora agertzen garenean bezala? Inolaz ere ez. Errealitatea asko soilduta, oinarritzko bi modu daude jakintza kudeatzeko prozesuari ekiteko:

1. Jakintza Kudeatzeko Eredua oinarri hartuta:

Erakunde baten jakintza kudeatzeko eredua prestatzeko, ezinbestekoa da honako hiru dimentsio funtsezko hauek lantzea:

- a. ZER galderaren dimentsioa. Hori erantzun behar zaio: zer egiten da erakunde honetan? Lanak, batetik, erakundeak darabiltzan prozesuetan hartzen du oinarri eta, bestetik, prozesu horietan erakundeko kideek betetzen duten paperean. Etapa

honetan, garrantzitsua da erakundeko bakoitzak honako galdera hauei erantzutea:

- i. Zer egin behar dut?
 - ii. Zer da garrantzitsua egin behar dudana egiteko?
- b.** NOLA galderaren dimentsioa. Bere helburua da “Nola egiten da egin beharrekoa?” galderari erantzutea. Ikastearekin zuzen-zuzen lotuta dago dimentsioa, eta honako galderei erantzun behar die:
- i. Nola egiten da nik egin beharrekoa?
 - ii. Zer jakin behar dut ongi egiteko?
- c.** EKINTZA dimentsioa. Galdera hau da funtsa: Nola laguntzen dit enpresak nik konpondu ezin dudan egoera bati aurre egin behar diodan? Galdera horri erantzunez lantzen da benetan jakintzaren kudeaketa, eta horretarako, estrategia jakin bat jorratu behar da, hiru unetan: *aurretik ikasi*, *unean ikasi*, eta *gero ikasi*.

2. Negozioko arazoak oinarri hartuta: non eta kausa (eta konponbidea) hein handi batean jakintza faltarekin lotuta dauden.

Jakina, puntu horretan kausak mugaezinak direnez, askoz errazagoa da jakintza kudeatzeko gehien erabiltzen diren tresnak aipatzea.

- a.** Auditoretzak eta jakintza-mapak.
- b.** Jakintzari *eusteko* estrategiak.
- c.** Mapak eta adituen direktorioak.
- d.** Prestakuntza-prozesuak (ikasketa informala barne).
- e.** Ekintzetan gogoetan aritzeko prozesuak (adibidez, *after action review*).
- f.** Praktika, ikasketa eta elkarlanean aritzeko komunitateak.

- g.** Jardun onenak eta ikasitako eskolak.
- h.** *Storytelling* eta kasuak.
- i.** Jakintzaren oinarriak eta memoria korporatiboak.

Ondorioak

Zergatik dago hainbeste interes jakintzaren kudeaketa dela-eta orain, bat-batean, Peter Druckerek, adibidez, jada horretaz duela urte mordo hitz egin bazuen? Oinarri-oinarrian dagoena da zuzendariak ez daukatela inongo interesik, ez jakiten ez ikasten, marketinga eta finantza kontuak bost axola zaizkien bezalaxe. Emaitzak interesatzen zaizkie, horiek bai; gainerakoa, emaitzak lortzeko bitartekoak besterik ez dira. Eta, azkenaldian, errealtateak buruko min handia eragiten die zuzendariari, arlo pribatukoak nahiz publikoak izan. Emaitzak beren erakundetan lan egiten duten jardunaren arabera koak dira, zuzen-zuzenean, eta beren lana ongi egiteko langileek daukaten *arma* bakarra, hain justu, jakintza da. Horrenbestez, ez da zaila ulertzen jakintzak (edo

jakintzarik ezak) zenbaterako eragina daukan edozein erakunderen negozio-emaitzetan. Eta galdera batzuek buruko mina ematen dute: Zer jakintza daukate? Nola kudeatzen da? Zein da garrantzitsua? Non dago jakintza, kudeatu ahal izateko? Langileek baldin badaukate jakintza (ez baitut administrazioik ezagutzen langilerik gabe funtzionatzen duenik), zein langilek dauka zehazki?

Eta, bukatu aurretik, beste bi kontu nahi nituzke argitan jarri, horietatik baitira etorkizuneko administrazio inteligenteen ernamuina:

- a.** Gaur egungo erakundeak bere garaian ez ziren sortu jakintza kudeatzeko.
- b.** Kudeaketako kontzeptu tradizionalak ez du balio zenbait tresna ukiezin administartzeko, hala nola jakintza bera.

Zaila da imajinatzen herrialde batean aldi berekoak izatea batetik, enpresa arrakastatsuak eta bestetik, modernitate, efizientzia eta bezeroekiko joera eredu ez diren erakundeak, non jakintza kudeatzea ADNaren baitakoa duten. ■

Euskara maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetuta

HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA (HPS)

Iragan azaroaren 15ean argitaratu zen EHAAAn –Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria– azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua. Arau horren bidez, euskararen jakite-maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetzen dira, eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzen.

Urteetan zehar titulu eta ziurtagiri ugari sortu izan dira Euskal Autonomia Erkidegoan euskararen jakite-maila egiaztatzeko. Hainbat erakundek eman dituzte eta esparru zehatzetan aplikatu. Hor ditugu, besteak beste, Euskararen Gaitasun Agiria (EGA), herri administrazioetako hizkuntza eskakizunak, irakasleen hizkuntza eskakizunak, HABEren –Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea– mailak, Osakidetzako eta Ertzaintza-

ko hizkuntza eskakizunak, eta abar.

Hori dela eta, ahaleginak egin dira egiaztatzen sistema horiek guztiak bateratu eta koordinatzeko, sistema ezberdinetan euskara maila berberak egiaztatzen direla ziurtatzeko xedez.

Zentzu horretan, dekretu berriaren bitartez baliokidetze araudia argitu nahi izan da, lehendik indarrean zeuden zenbait arau indargabetuz: batetik, apirilaren 8ko 64/2008 Dekretua, eta bestetik, otsailaren 24ko 48/2009 Dekretua –bigarrenak lehenengoa aldatu zuen hezkuntza arloko zenbait titulu eta ziurtagiri eransteko–. Biak daude orain indarririk gabe, eta horrela, bada, arau bakarrera –azaroaren 9ko 297/2010 Dekretura– bildu da arlo honetan dagoen araudia.

Bestalde, aurreko arauetan aintzat hartzen ez ziren hainbat titulu eta ziurtagiri jaso dira azaroaren 9ko 297/2010 Dekretu berrian. Alde batetik, Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria (HLEA) sartu da; Hezkuntza Bereziko lan legepeko hezkuntza-langile ez-irakasleen hizkuntza eskakizun berezia, alegia.

Bestalde, kontuan harturik Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoa-Office Public de la Langue Basque erakundeak Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) egiaztatzeko probak antolatzeari ekin diola bere jarduteko lurralde eremuan, ziurtagiri hori Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren beste batzuekin baliokidetu da.

Halaber, dekretu berria baliatu da hizkuntza eskola ofizialetan egindako euskara ikasketen egoera erregularizatzeko. Izan ere, lehen aipatutako otsailaren 24ko 48/2009 Dekretuan jasotzen ziren ikasketak horiek, baina Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Aretoak apirilaren 14an emandako 260/2010 epaiaren ondorioz bertan behera gelditu ziren arau horretan jasota zeuden xedapen batzuk, eta beraz, beharrezkoa zen epaiari erantzutea eta Estatu osoko hizkuntza eskola ofi-

zioletan egindako euskara ikasketak bilduko zituen arauketa berria egitea.

Ondorioz, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretua da baliokidetze kontuetan dugun arau berria, EHAAAn argitaratu eta bihar-munean jarri baitzen indarrean. Horren babesean, bere euskara maila egiaztatzen duen titulu edo ziurtagiri bat duenak edozein herri administrazioen aurrean aurkeztu ahal izango du, eta onartu beharko diote, adibidez, hizkuntza eskakizun zehatz batekiko baliokidetasuna.

Administrazioen aurrean aurkeztu behar hori ere ez da egongo Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoa aipatzen den euskara tituluen eta ziurtagiriaren erregistro bateratua abiarazten denean. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak kudeatuko du tresna berri hori. Izan ere, xedapen horretan jasotakoari jarraiki, erakunde ezberdinen mendeko erregistro ugari dandenez gero, beharrezko pausoak emango dira erregistro horiek modu bateragarrian jaso ahal izateko eta herri erakundeek erraz kontsultatu ahal izateko.

Erregistro bateratuaren diseinu teknikoa amaitzeaz dago. Proba pilotu bat egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioei eskaini baino lehen. Erregistro bateratua abian denean, erakunde horiek aukera izango dute, hautaketa-prozeduretan parte hartzen dutenei ezer aurkezteko eskatu gabe, zer euskara ziurtagiri lortua duten jakiteko. Horretarako, batetik, hautagaiek kontsulta hori egiteko baimena eman beharko dute izena emateko orrietan, eta, bestetik, arau juridiko bat onartu beharko da erregistro hori behar bezala arautzeko. Azkenik, aditu talde bat osatuko da, baliokidetu diren ziurtagiri eta tituluak lortzeko azterketen jarraipena egin eta baliokidetasuna bermatzeko.

Bukaerako desideratuma: helburu bera izan duten aurreko arauak baino bizi luzeagoa izango ahal du dekretu berriak! ■

Euskara eta ingelesa mintzapraktikatu!

JULIÁN GUTIÉRREZ
JUANAN PEREIRA
INKO PERURENA
SILVIA SANZ
EHU-UPV

Dudarik gabe, ahozkotasanaren praktika da hizkuntza berri bat ikasi nahi duenarentzat atazarik zailenatariko bat. Hizkuntzen irakaskuntzan, eta batez ere ingelesaren irakaskuntzan aditua den Richard Vaughan irakaslearen iritziz, hizkuntza berri bat menperatzeko ikaskuntza prozesua hiru ataletan banatu behar da, honako ehunekoak jarraituz: ikasketa teorikoak %20ko zati bat beteko luke, nor bere kabuzko ikasketak %40 eta bukatzeko, egunerokotasunean, bizitza errealean egindako mintzapraktikak, gainontzeko %40a.

Vaughanek esan gabe ere, jakin badakigu hizkuntza batean dugun ahozkotasanaren jarioa hobetu nahi badugu, dezente praktikatu behar dugula. Baina ironikoa bada ere, hizkuntza berri bat ikasten ari garenean, gutxien egiten duguna zera da: mintzapraktikatu. Bai lotsagatik, bai konfiantza ezagatik edo beste edozein aitzakiarengatik (mintza-lagun egokia ez izatea, ikasi nahi den hizkuntza ez da egun bizi garen

herrialdean hitz egiten, akademia batean hastea garestia da...).

Baliabide informatikoak

Egun, hizkuntzaren ikaskuntzan laguntzen duten hainbat aplikazio informatiko daude. Horien artean, bi mota ezberdinu daitezke: online eta offline aplikazioak. Azken hauen artean badaude mintzapraktikan laguntzeko ariketak eskaintzen dituztenak, baina zenbait puntu ahul dituztela esan beharra dago: lizentzia prezioak, hizkuntza gutxituen mintzapraktikako ariketa falta, eta Microsoft Windows ez diren sistema eragileekiko bateragarritasun eza.

Online aplikazioek mintzapraktikarako ariketa interaktibo gutxi eskaintzen dituzte eta are gutxiago denbora errealean erantzuteko ariketak. Bestalde, online zerbitzuak erabili ahal izateko ere, askotan kuota bat ordaindu beharra dago, eta sistema horien artean ez dugu hizkuntza gutxituekin mintzapraktikarako ariketak egiteko aukerarik aurkitu.

Babelium Proiektua

Aipatu arazoei aurre egiteko asmoarekin, Informatika Fakultateko GHyM ikerkuntza taldeak BabeliumProject.com proiektua garatu du. Elkarrekintza sustatzen duen online aplikazio kolaboratibo eta ireki bat da.

Babelium tresnaren funtzionamendua honakoa da: erabiltzaileak hainbat hizkuntzako elkarrizketak dituzten bideoak eskuragarri izango ditu. Elkarrizketa bakoitzean bi edo hiru pertsonaiak hartzen dute parte.

Erabiltzaileak bideoa ikusi eta pertsona baten papera edo rola har dezake, alegia, pertsona horren bikoizketa egin dezake. Bikoizketa egiterakoan, erabiltzaileak hautatu duen pertsonaiak hitz egin behar duen unean, erabiltzaileak mikrofonotik esaten duena grabatzen da (eta nahi izanez gero, web-kameraren laguntzaz erabiltzailearen aurpegia eta ezpainen mugimendua ere grabatu daiteke).

Bizitza errealean gertatzen den legez, erabiltzaileak denbora mugatua izango du esaldi bakoitzean esaten dena bikoizteko (jatorrizko pertsonaiak erabili zuen denbora eta abiadura/erritmo bera, alegia).

Bideo elkarrizketaren bikoizketa amaitu ondoren, erabiltzaileak aukera izango du egindako lana berrikusteko.

Emaitzarekin gustura badago, grabaketa zerbitzarira igoko du, beste erabiltzaile batzuek, modu kolaboratiboan ebaluatu dezaten. Hau da, bikoizketa euskaraz egin bada, euskaldunak diren beste erabiltzaile batzuek bikoizketaren kalitatea ebaluatzeko aukera izango dute, bai bideo-erantzun bat emanez edo bai testu soila erabiliz.

Bideo-elkarrizketek zailtasun-maila ezberdina dute, eta Hizkuntza Eskola Ofizialean darabilten mailakatze sistema erabiliz sailkatzen dira (A1... C1).

Bestalde, Babeliumek euskarazko eta ingelesezko bideo sorta ederra badu ere, edozeinek nahi adina bideo igo dezake, nahi duen hizkuntzan.

Bukatzeko, mintzapraktika egiteaz gain, erabiltzaileak bere ulermen gaitasunak landu ditzake bideoen azpтитuluak idatziz. Izan ere, azpтитuluak idazteko atal kolaboratibo bat ere badu Babeliumek. Kolaboratiboa, bideo baten azpтитuluak hainbat erabiltzailearen artean bete daitezkeelako alegia, ez ditu pertsona bakar batek zertan azpтитulu guztiak berak bakarrik idatzi.


Erabiltzaileen arteko kolaborazioa sustatzeko, aplikazioak kredituen kontzeptua darabil. Kredituak lortzea doakoa da; baina, hori bai, erabiltzaileak Babeliumen ekarpenak egin beharko ditu horiek lortzeko. Adibidez, bideo bat igotzerakoan, edo beste erabiltzaile baten bikoizketa ebaluatzerakoan, kredituak lortuko ditu. Berriz, bere lana beste ebaluatzaile batek zuzentzea nahi badu, kredituak kontsumituko ditu.

Proiektua Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza eta HABE erakundeekin laguntzari esker egin da. ■

HINTZENA

DOITZA BARANDIARAN

IDAZLE ESKOLAKO IKASLE OHIA



Goizero bezala, Patxi mutilzaharraren etxe aurretik igaro haiz eguneroko paseotxo emateko asmoarekin. Gaur, ordea, ezusteko batekin topo egin duk, zerbaitek eten dik hire pausoa. Begiak tinko jarri dituk atariko BH gorri-gorriarengan. Bat-batean begirada lausotu eta hire burua Tourmalet gainean irudikatu duk, Bahamontes, Galdeano, Otano, Suarez eta Luis Perezen alboan. Gogoan dituk urte zoragarri haiek.

Eta Getxoko Kriteriuma, punta-puntako ziklistek parte hartu zuten lasterketa hura, ahaztezina duk. Anquetil, Charlie Wolfe, Loroño eta Poblet bera han hituan, anaia eta hirekin batera. Jendetza itzela bildu zuan; kaleetako oihiak, txistuak, txaloak, animoak... Hire memorian oihartzuna ditek oraindik.

Poblet eta De Rigaderekin batera buruz buru jarri hintzeneko azken ehun metroak, atzo bertan jazo balira bezala sentitzen dituk. Bien gurpilean abiatu hintzen, pelotoia atzeratzen ari zen bitartean. Burua altxa eta helmuga bertan ikusi huen, pare bat kilometrorra besterik ez. Ezpainak estutu, bi eskuak gogor eskulekuan, eta eraso bortitza jo huen, hire azken hatsa.

Lortu huen, azkenean. Besoak gora eta txapel beltza buru gainera. Urrezko aroaren hasiera besterik ez zuan izan, erreskadan etorri hituan gainerako lorpenak eta ametsa errematatzeko, Tourra korritzeko deia jaso huen.

Eskuin belaunean nabaritu duan sastadak ordutik 40 urte igaro direla gogoratu nahi izan dik. Hasperen luze baten ondoren, paseoari ekitea hobe dela pentsatuaz, abian jarri haiz.

Buelta erdia ematerako, begiak berriro ere, bizikletari so geratu dituk, salatu egiten haute, iman baten modura erakartzen dik hire arreta. Eta hasiera haiek etorri zaizkik oroimenera.

19 urte besterik ez hituen, anaiaren eta bion artean lehenengo bizikleta alokatu zenutenean, Oiarbidek utzitakoa. Afizionatu mailan harekin ibili hintzen, huraxe izan zuan lehen pedalkadetako hire bidelagun. Zenbat buelta eman ote zizkian igande arratsaldetan Nafarroa aldera! Euskal Herriko txoko gehientsuenak ezagutu hituen bi gupil haien gainean.

Hirea, propioa, iritsi zuan arte: Orbea gorri bat, aluminiozko koadroa zian, aparteko distira, liluragarria benetan. Altxorra hiretzat. Egunero garbitzen huen, paseoa eman ondoren, zuzenean etxe atzeko baratzerara joaten hintzen, aita zenak, landareak ureztatzeko erabiltzen zuen mangera hartu eta zilarra bezain garbi gordetzen huen, biharamunera arte.

Entrenamenduetan ere fin-fin ibiltzen hintzen, goiz eta arratsalde, negu nahiz uda; euri jasatan ala eguzki galdatan, ez huen bat bera barkatzen. Gipuzkoako txapelketak botarazi zizkian lehen izerdia, Milan San Remok hortzak erakutsi zizkian; eskarmentu

apur batekin ekin hion Espainiako Itzulari, berde xamar, ordea, artean. Italiako Giroan *paparazzien* botereaz jabetu hintzen eta Frantziako Tourra, helbururik gauzatuena izan zuan. Sakrifizio guztiek onurak dakartzatela ikasi huen, eta ametsak egia bihurtzen direla ere sinetsi huen.

Patxiren bizikleta hartzeko tentaldiari ezin izan diok eutsi. Hel-dulekua bi eskuekin hartu, eskuineko hanka aulki gaintetik pasa eta ezker oina dagokion pedal gainean jarrita txirrindulari sentitu haiz, berriro ere, segundo batzuetan. Nahi, baina ezin. Hainbeste eman dian tramankuluak, aurre hartu baitzian; azkenean, hi bihurtu hintzen errepidearen helmuga. Marraren bestaldean zer dagoen ikustera gonbidatu hinduen.

1963ko Frantziako Tourra malapartatua izan zuan. Estreinakoa eta azkena, hiretzat. Parisko kaleetan barna, lasterketa buruan hintzen, 160 km bakar-bakarrik eginak hituen, atzetik arimarik ere ez huen ikusten. Helmugarako azken kilometroko pankartapetik igaro hintzenean, bihotza taupada bizian entzun huen, bizikleta gaineko ibilbide osoa, plano laburrean igaro zuan hire oroitzenpenetatik. Inortxok ere ezin hinduan geldiarazi. Burua altxa eta hor aurrean ikusi huen, zapaltzeke, inoizko marra zuririk lodiena, hire jomuga, ametsik beteena.

Bat-batean ordea, tupustean, hire aurrean bihurgune itxi-itxia agertu zuan. Astirik ez huen izan galgatzeko, aurreko gupila dantzan hasi zuan, eta konturatzerako anbulantzia barruan hintzen, sirena deiadar batean zela ospitalerako bidean.

Zortzi egun ohetik altxa gabe, hilabete eta erdi mugitu ezinda, belaunezurra txiki-txiki eginda, eta agur bi gupilen gainean jartzeari. Abiadura bizian jaitsi hintzen, konfiantza gehiegirekin agian, azkar iritsi nahi huen helmugara. Agudo eta ondo, usoek bakarrik egiten diate hegan. Podiumean, gorengo koskara igotzerik ez huen lortu; ez eta lore sorta ederrik jasotzeko aukerarik ere. Klik alde batetik eta klik bestaldetik. Hurrengo eguneko egunkarien orrialdeak bete hituen, ez, ordea, hik nahi huen moduan.

Helmugako marrarik ez huen zapaldu eta inoiz gehiago ezingo huen errepikatu besoak altxatzearen keinua. Hogeita sei urte besterik ez hituen. Sendatuko hintzen gerora, baina berriro hasteko animorik ez huen. Ezin huelako lehengo bera izan, alferrikakoa zelako.

Orain ere, hobe izango duk Patxiren bizikleta zegoen lekuan uztea. Harro egoteko moduan haiz horratik, Jazinto! Karrera hainbat milioi irabaziz gero, ondo geratuko hintzen. ■

Erriberako kobazuloetako biztanleak

PATXI ZABALETA

IDAZLEA

Lurpeko biztanleak

Nafarroako Erriberan, XX. mendeko hirugarren herenera arte iraun zuen jendeak kobazuloetan bizitzen. Kobazuloetako bizimoldea izan ere, mila bederatziehuneko 50-60ko hamarkadetan izan zen debekatua, eta gero, gehienetan indarrez ezabatua. Batzuetan, eta ez toki gutxitan, dinamitatu eta eztanda eraginak izan ziren ordura arte mende eta mendeetan ez ezik, milurtekoetan ere pertsonen eta familien bizitoki izandako kobazuloak. Beraz, orain dela hirurogei urte arte Euskal Herrikoa zen bizimolde batez ari gara.

Izan, badira gaur egun oraindik, Nafarroako Erriberan lurpean jaio eta bizitutako hainbat eta hainbat. Berdin gertatzen da, jakina, Errioxan, Aragoian eta Iberiako hegoalde eta ekialde osoan eta baita Mediterraneoko ingurune guztian ere.

XX. mende hasieran, Nafarroako Erriberan jendea kobazuloetan bizi zen 62 herri zeuden, gutxi gorabehera. Jo liteke garai hartan 10.000 bizilagun bizi izanen zirela kobazuloetan; anarlean, Nafarroak 330.000 biztanle zeuzkan.

Kobazuloetan bizi zirenak gehien-gehienetan oso pobreak ziren; herriko txiroak. Lurrik eta aztiarik gabeak, eta askotan, ofiziorik gabeak; lur-lanetan behargin edo

peoi, hau da, besterentzat lanean aritzen zirenak. Horretarako, goizero, egunsentian, herriko plazako toki jakin batera ateratzen ziren, lur etaazienda jabeek egun bakar horretarako lana eskaintzeko aukera zitzaten.

Kobazuloetako biztanleak pobreak izateaz gainera, eta agian horrexegatik, eskolatu gabeak ziren maiz; bizimodu arras baztertua eramaten zuten. Tamalez, ordea, zehaztasun gutxi gorde da udal artxibategietan, eta etnografia edo etnologia beste arlo batzuetan hain gogokoa bazaigu ere, ez dugu behar bezala landu mende eta mendeetan Euskal Herri peto-petokoa izan den bizimolde honen azterketan. Bestalde, euskal eskale edo euskal ijito eta abarrekin gertatzen den bezala.

Frankismoarentzat 1950eko hamarkadan kobazuloetako bizimoldearekin bukatzea sistemaren propagandako ildo nagusia bilakatu zen. Diktadurak ohi bezala, debekuaren eta bortxaketaren bitartez konpondu zuen arazoa. Kobazuloak itxiarazi ez-ezik, lehertu eta dinamitatu egin zituzten toki batzuetan jendearen itzulera ekiditeko, nahiz eta beste toki batzuetan etxe-merke deitutakoen bitartez ordezkatu zituzten.

Beraz, 1960 urteaz geroztik, ez da inor bizi Nafarroako Erriberako kobazuloetan.

Gaur egun, azken hamarkadetan ezarritako bizi-baimena lurpeko bizitokientzat ukaturik dagoenez gero, ezinezkoa zaio ura, argindarra, gasa edo beste zerbitzurik jasotzea.

Azpimarratu beharrekoa da lurpekotasuna mintzaten ari garen bizimolde honi dagokionez. Ez baitira harpeak edo harri edo losaren azpiko bizitokiak, baizik eta lur buztintsu jakin batzuetan egindakoak.

Lurrezkoak izate horrek baldintza eta ondorio asko dakartza; alde batetik, egiteko modua; bestetik, bero edo epeltasuna eta lurrarekiko atxikimendu erantsia. Gizaki guztiontzat lurrak irudikatzen duen emankortasun oparoaz harantzago, babesaren kuttuntasun berezia adierazten du lurpean bizitutakoentzat.

Kaparroson ez zituzten kobazuloak dinamitatu eta bazen familia bat –Gartzia Urmenta– oporretan egun batzuk lurpeko babesan lo egitera itzultzen zena; kobazuloa bere ate giltzatuarekin eta barrendik garbi-garbia mantendu zuten. Sesman, kobazuloak udalaren ondasun erroldan zeuden, beste herri gehienetan ez bezala; bertako seme bat, bizitza osoa Frantzian igaro ondoren, jaioterrira itzuli zen erretiroa hartuta 1990eko hamarkadan. Hark kobazuloan bizi nahi zuen, baina argindarra, ura eta telebista ukan nahi eta lurpeko babes epelean lo egiteagatik ondoko etxea erosi zuen eta lurpetik igaro zerbitzuen hari eta hodiak.

Azterketa xume baten berri

1995ean argitaratutako *Badena dena da* izeneko eleberria kobazuloak dituen Nafarroako Erriberako herri asmatu batean garatzen da zati batean. Trilogia baten bigarrena da aipatutako eleberria (*Ukoreka* eta *Arian Ari* dira trilogiako beste bi eleberriak) eta esandako zatia behar bezalako duintasunez idaztekoan, ordea, kobazuloetako bizimoduaz *kanpo-koaderno* edo datu bilketa xume bat egiteko premian aurkitu nintzen. Izan ere, ni Leitzakoa izanik, ez neukan dagoeneko desa-

gertua zegoen kobazuloko bizimoldearen ezagutza zuzenik.

Zehaztasun bilketa apal horretan topo egin nuena da, udal artxibategietako datu urri-tasunaz at (Sesmako Udala salbuespena da) eta azterketa etnografikoen hutsune nabarmenaz gainera, kobazuloetan jaio eta bizitutakoez latsa eta konplexua zutela, eta oraindik ere izaten dutela, beren jatorri eta izaeragatik. Egia esan, latsa eta konplexu hori guztiz ezagunak zitzaizkidan, zeren eta euskaldun elebarrak askok –neure sendian bertan ezagutu bezala– izan duten latsa eta konplexu berdina diren.

Zailtasunak zailtasun, *Badena dena da* eleberriko gertakizunen kokapenaren aukerak bazeukan arrazoiketa zehatz bat; zera alegia, 1936ko gerratearen hasierako erailketak CNT-FAIko partaideen kontra bideratuak izan zirela, hein handi batean. Nafarroan fusilatutako 3.550 ingurutik, agian 2.000 edo anarkismoarekin lotura edo zerikusia zutenak izan ziren. Baina nahiz eta genozidio izugarri hura altxamendua egin zutenen erantzukizun zuzena eta kontrolatua izan zen, egia da baita ere herrietako gorroto, ezin-ikusi eta bekaizkeria guztien areagotzeaz baliatu zela. Haserre eta errieta haien artean lur komunalei eta lur jabetzari buruzko lehia zegoen, eta lehia horretan anarkismoaren eskakizunek bat egin zuten kobazuloetako lurreko langileen premia garrantzekin. Adibidearen mugara makurtuz, esan genezake Nafarroako Erriberan 1936an eraildako asko eta asko komunalen eta lurreko beharginen aldeko anarkistak izan zirela.

Hala bada, *Badena dena da* eleberriko gaiaren eta kokapenaren aukera hura duintasunez oinarritzeko asmoarekin etnografiako inkesta apal bat garatu nuen. Lau galdera egiten nizkien kobazuloetan jaio eta bizitutakoei, galdera bakoitza hizketa aitzakia bezala erabiliz:

1. Lana eta lanbidea. Zertan lan egiten zuten, zein lanabes edo tresneria zeukaten, norentzat lan egiten zuten, eta abar.

Gehienak lur lanetan behargin aritzen ziren, egunsentian herriko enparantzan norik kontratatu jarri eta bakoitza bere aitzur, jorrai, igitai, esku-are edo burdin-sardeakin joaten zen lanera.

2. Janaria, arropa, familia. Ehiza eta arrantza.

Gose handia jasaten zuten, batez ere neguan. Su egiteko egurrik ez eta sugaia bilatzea lanik zailenetakoa izaki, ibaiek ekartzen zituzten enbor, adar eta zutondoak erabiltzen zituzten. Haragitzat behikirik ez zuten ezagutzen, ardi-ki gutxi, txerriki zerbait batzuetan. Familia bakoitzak ahuntz bat izaten zuen herriko ahuntz-taldera jetzi ondoren egunero atera behar zena. Artaldeak bakarrik korralizeroek izan ohi zituzten. Garia, garagarra, oloa eta zekale izpi galduak biltzen zituzten, segalariak igaro ondoren.

Azukrearen ordezkotzat, bildu gabe eguzkitan zimeltzen utzitako erremolaxa txarrak erabiltzen zituzten. Kafetzat berriz, garagar txigortuak. Ehiza eta batez ere ibaietako arrantza –barboak, igelak, muskerrak, sugeak– garrantzitsuak ziren eta ez zen ezer baztertzen.

Pertsona bakoitzak arropa bat besterik ez zeukan. Umeak eta gazteak oinutsik ibili ohi ziren, eta lihoa egiten edo artilea prestatzen eta ehuntzen laguntzea izan ohi zen oihalak eskuratzeko bide bakarra.

Toki batzuetan, Kaparroson edo Milagron, sua egiteko inguru oso batekoak bildu eta su bakarra egiten zuten egunean, eta otordu nagusia ere bakarra izaten zen, familia beraren izaera beste itxura batekoa bihurturik.

3. Ondasunak. Lurra (korralizen gorabehera), aziendak (herriko ahuntz-taldea), tresneria.

Batzuetan, mando bat izaten zuten lanerako, bide eta ubide ertzetako belarraz mantentzen zutena. Lur puska bat

Udalak inguru komunitik utzia izaten zen eta baratzea egiteko erabiltzen zuten.

Kobazuloan armairuak, eserlekuak eta ohatzea edo mahaia lurrezko hormetan egindako koskak ziren gehienetan, altzari oso gutxi baitzuten.

Ateak bazituen zerbitzu eta zeregin anitzak, besteak beste, kobazulora piztiak edo zomorroak sartzea eragotzea. Hala ere, saguak, arratoiak, sugeak eta inon diren ilunpeko intsektu eta zomorroen emana oso astuna izaten zen, batik bat uda aldean; horregatik, askotan, karez edo gisuz markatzen zituzten sarrerak.

4. Kobazuloaren eraikuntza. Jabetza, egitura, eraikitzeak erak.


Hasieran, beti gela bat izaten zuen kobazuloak; atea zeukan gela. Gero, albo batean edo bestean, beste gela bana egiten zitzaion, bakoitzean leiho banarekin. Eta inoiz, atzeko aldean, beste gordailutarako gela ilunen bat.

Zailena tximinia egitea zen; garai aldean mendi handia zeukatenean ezinezkoa. Tximinia eginez gero, goiko partean harri aske edo laxatuekin utzi behar zitzaion keari irtenbidea eta, aldi berean, estalia eman euria ez zedin sar. Sua gehienetan kanpoan egiten zen; izan ere, kanpoko aldea zen kobazuloko biztanleen sukaldea, egongela, enparantza eta bilgunea.


Inkesta xume hau Milagro eta Ablitas bitartean, Lazagurria eta Mendabian (izen euskalduneko herriak) barna egin nuen eta erantzun batzuen xehetasun apala (Kapasorroko M^a Jesús Lasterra, Milagroko Joakin Jiménez, Ablitasko Jose Ruiz edo Azkoienko Josefina Campos lekuko) hunkigarria da.

Aitortu beharrekoa da azkenik, *Badena dena da* eleberriko gertakizunak, zeharo asmatuak izan zirela; hori bai, lurra eta askatasuna hainbeste maite zituzten anarkista haien ohoretan. ■

Hitz gezidunak

		Lasaia, nasaia	▼	Palestinako lurraldea	▼	Frantziako diru zahar	▼	Badago	▼	Suari diario	
		Pl., landare usaintsua		100 x 10		Garratz		Literatura,hitz elkarteetan			
		▶		▼		▼		▼			▼
		Lanbide	▶								
		IRUDIKO FRUITUA									
Mardula, guria	▼	Salakuntza	▶	▼						Tontorrak	
Altzoa		Tenorean									
▶		▼				Areago	▶			Kontso- nantea	▶
						Gipuzkoa- ko herria				Gipuzkoa- ko herria	▼
Utzi	▶					Ate ingurua	▶	▼			
Lapurdiko herria						Her. hizk., Beatriz					
▶					Aurrizkia	▶	▼		Jardun	▶	
					...-tak, erloju hots				Beldur		
Aldea	▶			▼				Hitzarmen	▶	▼	
Aspaldiko inperioa								Fikaren erdian			
▶						Herri baxe- nafarra	▶	▼			
						Bokala					
Pl., barazki hostotsua	▶					Alokairuak	▶	▼			

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Makurrak.
2. Sustraiak.
3. Kontrako elementuen arteko berdintasuna.
4. Zorua.
5. Nahastura trinko.
6. Ez hotz, ez epel.
7. Leku hezeetan hazten den landare.
8. Lapurdiko ibaia.
9. Gipuzkoako herria, Tolosaldean.

SOLUZIOAK

ⓧ	B	A	K	E	ⓧ	G	A	I	N	A	K	
ⓧ	L	I	B	E	T	E	R	A	T	U	R	A
ⓧ	M	I	K	A	A	T	Z	ⓧ	I	Z	U	
ⓧ	M	A	Z	L	A	A	A	I	A	ⓧ	A	
ⓧ	Z	A	B	A	L	A	ⓧ	B	E	A	ⓧ	
ⓧ	K	ⓧ	S	A	G	A	ⓧ	R	A	R	A	
			ⓧ	M	A	L	A	ⓧ	T	A	S	
			ⓧ	M	A	L	A	ⓧ	S	A	ⓧ	

Hitz gezidunak

1. Okerrak.
2. Erroak.
3. Oreka.
4. Eroa.
5. Ore.
6. Bero.
7. Berro.
8. Errobi.
9. Berrobi.

Goitik behera